



Xegone SAHARREA
Zigako apustuzalea 'El conquistador del fin del mundo' saioan → 9

Inauteriak → 9-18

Joaldun eta mozerro besta

ARESO → 37

Bi araztegi eraikiko dira, herrian eta industrialdean

BAZTAN → 39

Ordenantzak onartu ditu Batzar Nagusiak

BIZTANLERIA → 44

50 bizilagun gehiago dira eskualdean

ARRANTZA → 46

Amuarrainak hartzeko aukera aurten bai

Laxoari buruzko hirugarren liburua argitaratu du Tiburtzio Arraztoa iruritarrek

XIX. mende akabera arte pilota joko nagusia izan zen laxoari buruzko liburu berria argitaratu du Tiburtzio Arraztoa iruritarrek: *Laxoa, la pelota en la plaza* (Laxoa, pilota plazan). Euskal pilotaren modalitaterik zaharrena da laxoa.

ELKARRIZKETA → 3



Doneztebeko bertz lagun eta Urdiaingo bertze bat Ekuadorko Andeetan izan dira, eta Chimborazo (6.310 metro) eta Cotopaxi (5.897 metro) gailurrak zapaldu dituzte, bertzeak bertze.

ERREPORTAJEA → 4-5



Doneztebetik Ekuadorko gailurrera

LESAKA → 22

Ikastola haunditzeko beharrik ez dela dio Fundazioak

Irain eskolan 450 leku libre daudela erran du Cornelia Lekuona Fundazioko Patronatuak.

GAZTEAK → 31

Txapamendi ekimenaren bukaera hilaren 29an

Eskualdeko gazte independistek antolatutako Txapamendi ekimena bukatzeko ekitaldiak Aizarotzen.

GOIZUETA → 34

Bidegorria herritik Olatxora luzatu nahi du Udalak

Madaleneko Zubitik Olatxorako zatia bidegorri bihurtzeko proiektuari lehen onespina eman dio.

BAZTAN → 38

'Baztanen bizi, bertan lan egin' manifestazioa larunbatean

ELA, LAB eta EHNEk deitutako manifestazioa Elizondon egingen da, 12:00etan.

SENPERE → 42

Marcel Arribillagaren kantu bilduma liburuan

Oxtikenekoak eta Hatsa elkarteek Arribillagaren 100 kanturen bilduma kaleratu dute.



ORDOKI

altzariak

ZATOZ ETA IKUSI
ETXEA MOBLEZTATZEKO
DUGUN AUKERA
ZABALA

URTARRILA ETA OTSAILEAN
ESKAINITZA BEREZIAK



ERAKUSKETA: Bittiria 26 | SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 | Tel. 948 63 77 80 • LESAKA

GATIBU

00:30 12K

URTARRILAK 22
LARUNBATA

ZOPILOTES

00:30 1K

URTARRILAK 29
LARUNBATA

TXIRRIAOS

ZEAMAYS+SPLIT77

23:30 1K, Aurten 10C Bortan

OTSAILAK 12
LARUNBATA

Sailmenta buruak: Elizondo, Arzakenea, Txikito | Lesaka: Arzaketa | Inuria: El Inferno

GUGIRA

23:00 10K

PANTXOA ETA PEJO | NIKO ETXART
GORKA KNORR | TXOMIN ARTOLA
URKO | ERRAMUN MARTIKORENA
J.M. HEDAXAGAR | XABI SAN SEBASTIAN

OTSAILAK 19
LARUNBATA



garagardologia

MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...

OSTIRAL, LARUNBATA ETA JAIEGUNEKO BEZPERATAN IREKIA
ERRESERBAAK: TEL. 948581883



WWW.LURTEL.GUGIRA.COM

Tiburtzio Arraztoak (Irurita, 1952) denetarik egin du laxoaren inguruan: pilotari, antolatzaile, epaile eta batez ere, «pilota modalitate zaharrenaren» ikerle. Ikerketa horien ondorioz,

lehendik ere baditu zenbait liburu argitaratuak. Laxoaren Gida egin zuen lehenik Txuma Primekin batera, eta 2004an, *Guante-Laxoa, la modalidad mas antigua de la pelota vasca*

argitaratu zuen. Oraingoan, hainbertze argazki eta ilustrazio biltzen ditu, txapelketa ofizialen eta desafioen informazioa, baita laxoa eta plazen inguruan gertatutako bitxikeria aunitz ere.

Tiburtzio ARRAZTOA | 'Laxoa, la pelota en la plaza' liburuaren egilea

«XIX. mende hondarrera arte laxoa zen inguru honetako pilota joko bakarra»

A. AROTZENA | DONEZTEBE

Hemendik kanpo hain ezeguna den pilota modalitateari buruz hirugarren liburua idatzi duzu... Hainbertzerako ematen du laxoak?

Bai, bai, bai... Dudarik gabe! Duela mende bat arte, inguru honetan bakar-barrik joko luzean jokatzen zen eta artxiboe-tan begiratu gero, seguru badela material gehiago, bitxikeriak, datuak... Kontua aurkitzea, begiratzea eta aztertzea da. Iruditzen zaigu hemen beti frontoian edo ezker-paretean jokatu dela pilotan, baina horrek ehun urte baino gehixeago bertzerik ez du.

Zerezberdintasun dau de laxoari buruz idatzi dituzun hiru liburuen artean?

Laxoaren Gida argitaratu nuen lehenik Txuma Primekin batera, eta hura laxoa ezagutzeko gida xume bat bertzerik ez zen: jokoaren ezaugarriak, arauak... biltzen zituena. 2004an, *Guante-Laxoa, la modalidad mas antigua de la pelota vasca* argitaratu nuen, 540 orrialdeetan laxoaren historia, jokalarionenak, azken urteotako txapelketak eta hainbertze xehe-tasun bilduz. Oraingo liburu honetako 300 orrialdeetan eta 34 kapitulu-tan, hainbertze argazki eta ilustrazio biltzen ditu, txapelketa ofizialen eta



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Tiburtzio Arraztoak urteak daramazki laxoa ikertzen eta horren emaitza da azken liburua.

desafioen informazioa, baita laxoa eta plazen inguruan gertatutako bitxikeri aunitz ere, artxiboe-tan begiratuta topatutako agiriak, jendearekin izandako solasaldietan bilduak. Laxoaren historia zeharizan diren anekdotak biltzen dira eta 25 eurotan salgai dago.

Modalitate zaharrena izanik, noizkoa da bildu duzun daturik zaharrena?

1681eko irailaren 25ean Iturenen jokatu zen laxoa partida baten informazioa bildu dut. Lau gartzaindar lau arantzarren kontra aritu ziren. Ehunka lagun bildu zen plaza-

DIRUTZA APUSTUETAN
«Txapelketak antolatzeko hasi ginen arte, beti desafioko partidak izan ziren laxoak. Interesgarrienak ibarren artekoak ziren, Baztan Malerrekaren kontra, eta dirua erruz jokatzen zen. 1848an Irunen Gipuzkoa eta Iparraldekoen arteko desafioan 12.000 ikusle bildu ziren eta kalkulatzen da 150.000 libera jokatu zizutela. Sekulako dirutza zen orduan»

ra eta apustueta ere diru aunitz jokatu zen. Idatzian ageri denez, desafioagoizean 11:30ean hasi zen eta gauera bitarte ez zen akitu.

Eta harritu zaituen bertzelako bitxikeriarik?

Aunitz daude, zer erranen nizuke? Erraterako, XIX. mendean Mexikotik Baztanera bueltan etortzen ziren indianoek zenbat diru jokatzen zuten laxoa partidatan! Baina badira bertze hainbat: erratera baterako, duela 50 bat urte laxoa partidak irratitik zuzenean ematen zituzten Iruritan. Edo Erribera aldeko zenbait herritan laxoa joka-

tzeko zituzten ordenantzak, baita Tausten ere... Laxoak Europako gisako jokuekin duen harremana ere aztertzen da, edo Valentzia eta Japoniarekin dugun harremana ere. Bertze aldetik, pilota plazen historia ere biltzen da, aunitz gaur egun desagertuak direnak, baina bere garaian herri guzietan izaten zen pilota plaza.

Hain zuzen, horixe da Laxoa Elkartearen erronketako bat, plazak ez galtzea...

Gure helburua kirol hau gure eskualde ttiki honetan bederen mantentzea da, gehiago zabal-tzea kasik ezinezkoa baita. Eta horretan zerikusi handia du plazak mantentzea. Plaza irekirik ez badago, ezin da laxoan jokatu eta gure herrietan joera handia izan da plazak estali eta frontoiak egiteko. Pena da, baina horrek bueltarik ez duenez, daudenak behin-behinean mantentzen saiatu behar dugu.

Historia handia du laxoak... Eta etorkizuna?

1979an Laxoa Elkartea sortu genuenetik urtean behin txapelketa jokatze-ko helburua izan dugu. Egia da hasieran talde gehiago izaten zirela eta jende gehiago ere joaten zela ikustera, baina asmo hura sendotu dugu eta laxoa zer den ezagutzera eman dugu.

MENDIA → EKUADORKO ANDEAK

Ekuadorko mendirik garaienera eramán dute sei lagunek Erreka Kirol Elkartearen bandera

Chimborazo (6.310 metro) eta Cotopaxi (5.897 metro) mendiak dira zapaldu dituzten gailurrik altuenak

Doneztebeko Gogor Atxalandabaso, Joxerra Aldabe, Roberto Ordax, David Mindegia eta Sanba San Migel eta Urdiaingo Juanje Lizarraga dira 2010eko azaroaren 25etik

eta abenduaren 11ra Ekuadorko Andeetan izan zirenak. Mendiak eta Herriak elkarteak antolatutako ekimenaren bidez izan dira Ekuadorko mendirik garaienetan.

G. PIKABEA | DONEZTEBE

Mendi batek erakar-garri izateko ez ditu zortzi mila metro zertan izan, mendi bakoitzak baitu bere xarma. Garaiera bat edo bertze izan, denek badute zer-bait. Eta Chimborazo ere berezia da. 6.310 metroekin, Ekuadorko mendirik altuena da, baina horrez gain, erraten denez, Lurraren erdigunetik urrutien dagoen puntua ere ba omen da. Itsasoaren mailaren arabera, Everest da punturik garaiena, baina Lu-

rra ez denez guztiz esferikoa, Chimborazo kanpoko espaziotik hurbilago omen dago, eta beraz, lurraletik urrutien dagoen puntua izanda, Ilargitik hurbilago.

2010 urte hondarean egindako espedizio batean aipatutako mendi hau, eta Ekuadorko Andeetako bertze gailur batzuk bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten Doneztebeko bortz lagunek eta Urdiaingo bertze batek. Euren esku-

tik ailegatu zen Doneztebeko Erreka Kirol Elkartearen bandera orain arte inoiz egon den punturik altuenera, 6.000 metrotik gora.

ESPEDIZIO ANTOLATUA

Mendiak eta Herriak elkarteak antolatutako espedizio batean eman zuten izena Doneztebeko Gogor Atxalandabaso, Joxerra Aldabe, Roberto Ordax, David Mindegia eta Sanba San Migelek eta Urdiaingo Juanje Lizarragak. Mendiarekin zerikusia duten

hainbat jarduera antolatzen ditu 1976an sortua den Mendiak eta Herriak elkarteak eta Chimborazokoa 2010-erako proposatu zuten, gidari eta guzti. Mendi eta prezio aldetik, interesgarria iruditu eta joatea erabaki zuten doneztebarrek eta Urdiaingoak. Egin beharreko gestioak egin, eta azaroaren 25ean hartu zuten Ekuadorrerako bidea. 14 ordu eta erdiko hegaldiaren ondotik, Quito Ekuadorko hiriburura ailegatu ziren.

COTOPAXI «GOGORRA»

Chimborazo eta Cotopaxi (5.897 metro) gailurrak izan ziren mendizaleen helburuetako batzuk, eta horretarako aklimatazioari ekin zioten aitzinetik, bertzeak bertze, Laguna Cuicocha (3.600 metro), Fuya Fuya (4.200 metro) eta Guagua Pichincha (4.800 metro) igoz. 5.116 metro dituen Illiniza Nortera ere joan ziren eta ibilaldi ttiki batzuk ere egin zituzten.

COTOPAXIN BEHERA

«Pentsatu baino denbora ordu gehiago egon ginen 5.000 metrotik gora, lehenbiziko kordada bidea aurkitzen eta irekitzen»

Gogor ATXALANDABASO
Espedizioko kidea

DATUA

6.310

METRO

ditu Chimborazo mendiak. Ekuadorko altuena da eta Doneztebeko bortz lagunek eta Urdiaingo bertze batek 2010eko abenduan igo zuten.

Halere, Cotopaxi eta Chimborazo dira aipagarrienak. Izen bera duten herrialdean daude eta sumendiak ere bada, Pichincha bezala.

Ez da garaiena, baina Cotopaxi egin zitzaiz-



UTZITAKO ARGAZKIA
Mendizaleak mendian gora.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Espedizioan parte hartu zuten sei mendizaleetatik borts, Errekako bandera eskuetan.

en gogorra, «ez zizkigun gauzak erraz utzi». Horrela azaldu digu Atxalandabasok: «Jose Ribas aterpetik (4.810 metro) abenduaren 4ko gauean atera ginen, 00:15 aldera, eta abenduaren 5eko goizaldean, 07:30ean, igo genuen gailurra. 10:00 aldera itzuli ginen aterpera. Gogorra izan zen». Kontatu digunez, «Cotopaxiko bideak hautsita zeuden, eta pasabide batetik gutako bat pasatu zenean, hautsi egin zen». Horren ondorioz, «pentsatu baino ordu gehiago eman genituen 5.000 metrotik gora, lehenbiziko kordada bidea aurkitzen eta irekitzen». Ohiko ibilbidea erabiltzeko moduan ez zegoela eta, denboraluz ez egon ziren pasabide berriaren bila, eta azkenean Rompe Corazones izenekoa hartu zuten. «Paliza polita», izan omen zen.

Espedizioko gailur altuenerako bidea hartu baino lehen, abenduaren 7arekin igo ziren

Whimper aterpera (5.000 metro), eta arrats hartan, 22:00etan, abiatu ziren Chimborazora. Goizean 06:30 aldera lortu zuten helburua, eta hantxe atera zuten Errekako bandera ere. Gailur guztietan Mendiak eta Herriak elkarteko gidari Rafael Martinez ekuadortarra izan zuten ondoan, eta honen laguntzaile Ibanzito. Atxalandabasoren hitzetan, «esperientzia haundikoa» biak ere, eta Faustoz izenekoa bertze bat ere eurekin ibili zen.

EGURALDIA

Eguraldiak ez ziren arazo haundiegirik eman, baina somatu zuten eragina. Hasieran dena lainotuta aurkitu zuten, nahiz eta «hori ez zen oztopoa izan mendira joateko», erran digu Atxalandabasok. Horrez gain, «euri eta kazkabar zaparrada batekin ere harrapatu gintuen Fuya Fuya mendian. Tontorretik jaisten ari girela, gure buru gainean ekaitz elektrikoa to-

GOGOR ATXALANDABASO ESPEDIZIOKIDEAREN HITZAK

«Ez da bakarrik fisikoki ongi egon behar, elementu asko daude eta mendiak du azken hitza»

Espedizioan parte hartu duten sei mendizaleetako bat da Donezteben bizi den Gogor Atxalandabaso. Bidaia nola bizitu zuen kontatu digu.

• Zergatik aukeratu zenituzten Cotopaxi eta Chimborazo?

Inguruko mendi haundienak direlako eta helburua sei mila metrotako mendia igotzea zelako. Horretaz aparte, erakargarri asko dauzkate, parajak, inguruko bizimodua...

• Prestakuntza fisiko handia egin al zenuten espedizioa hasi aitzinetik?

Bai, gutako gehienek lasterka eta mendi bueltak egunero egiten zituzten, fondo eta indar pixka bat hartzeko. Hemengo prestakuntzak gero han nabaritu egiten dira, zenbat eta gehiago entrenatu orduan eta hobe, nahiz eta hau faktore bakar bat izan han ondo ibiltzeko. Gutako beste batzuk, ordea, lan ordutegia dela eta, ez genuen denbora gehiegirik eduki, baina esperientzia eta konfidantza handiarekin joan ginen. Esperientzia beharrezkoa da baina ez da bakarrik fisikoki ongi egon behar, beste elementu asko daude, eta mendiak du azken hitza.

• Lehen ere horrelako altueratako mendiren batean ibiliak al zarete?

Gehienak ez. Beti dago lehen pausoak emateko aukera eta gehienentzako hau izan da lehenbizikoa, beste batzuentzat ez, ordea.

• Nola joan zen espedizioa?

Espedizioa oso ondo joan zen. Helburu guztiak beteta itzuli ginen. Aklimatazioa gakoa izan zen Cotopaxi eta Chimborazo gailurretara igotzeko, eta horretarako Rafael Martinez gidarekin aklimatazio prozesua egin genuen.

• Gogorra izan al da?

Ez da esperientzia gogorra izan.



Gogor Atxalandabaso Ekuadorko Andeetara egindako espedizioan.

Dena oso ondo atera zitzaigun eta sentsazio onak eta politak gelditu zaizkigu. Zailtasun haundiena, nire ustez, Cotopaxin izan zen, ez zizkigun gauzak erraz utzi.

• Zein alde dago hemengo mendien eta egin berri dituzuen artean?

Altuera. Hemengo mendizale gehienek seguru zailtasun haundiago gauzak eginak dituztela, baina altuera hartan hemengo teknikak edo gauzak egitea... Beste mundu bat da.

• Zerbait gaineratuko nahi duzu?

Bai. Gu bezalako mendizale asko daude inguruko herrietan. Duela gutxi Sunbillako mendizaleak kanpora joan ziren eta ez dago berri haundirik egin zutenaz. Horrelako mendizaleak animatu nahi nituzke euren ibilaldiak denekin elkarbanatzeko eta erakustaldi gehiago egiteko.

katu zitzaigun, eta bixibixi joan ginen behera eta goian gelditu zen. Baina gure azpian laino handi bat zegoen, beherako bide erdi-erdi, eta gu izan ginen ekaitz horretara sartu ginenak, eta kazkabar ekaitz hark bai pikatzen zuela. Esperientzia po-

lita izan zen».

Helburu guztiak beteta abenduaren 11n itzuli ziren etxera, eta Atxalandabasok aitortu digunez, «gustura eta oso sentsazio onekin». Etorkizunera begira ere, badituzte ilusioak: «Erreka mendi taldeak erakutsi duenez, hemen men-

dizale asko gaude eta indartsu eta gogo askorekin gabiltza gauza gehiago egiteko. Hori ona da eta helburu gehiago zehazteko desiatzen gaude». Kanpora bertze espedioren bat antolatu bitartean, hemengo tontorrek zapaltzen segituko dute.



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Maitasunaren apologia

Azken urte hauetan, zoritxarrez, apologia zentzu negatiboan aipatu izan digute eta aunitzek ere ondorio ankerrak pairatu dituzte. Dena den, bertzelako apologia baten apologia egin nahi nuke lerro hauetan: Maitasunaren apologia. Maitasun klase desberdinak daude, bikote, familia edota lagunenganako maitasunak errate baterako. Elkar maite omen dugu, elkarrenganako maitasunak beti bizirik segitzen omen du. Omen diot, aunitzetan, hori adieraztea falta zaigulako, maitasuna suposatu egiten dugu, eta ez zaindu, elikatu. Zaila egiten dugu, berez errexa dena: besarkada bat, muxu bat, hitz goxo bat... barnetik ateratako adierazpen xume baino eraginkorra. Dena garesti dagoen garai honetan, maitasuna adieraztea da dirurik xahutu gabe egin daitekeen gauza eder eta baliotsuenetakoa bat. Adierazi dezagun bada, egin dezagun Maitasunaren Apologia.

«Dena garesti dagoen honetan maitasuna da dirurik xahutu gabe egin daitekeen gauza eder bat»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Orokorra, iraunkorra, egiaztagarria

Orokorra, iraunkorra eta egiaztagarria omen da erabakia. Batzuentzat historikoa eta aurrekaririk gabea, bertzeentzat aski ez dena eta balio ez duena. Batzuk bortizki erantzun diote erabakiari. Bertzeek begi onez eta etorkizun argi-ago baten itxaropenez. Izan ere, ostatueta edo leku publikoetan tabakorik erre ezin izatea ez da izan denen gustuko, baina gustoa ematen du.

Nabarmentzekoak



Amalia ARRETXEA
Doneztebarrak 100 urte

Ehun urte bete zituen urtarilaren 10ean Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte zaharretxean. Hainbat senide, lagun eta udal ordezkari izan zituen lagun ospakizunean.



Esteban IRIGOIEN
Mendi mutilek omendua

Errege Egunez Mendi Mutil Ohien Eguna ospatu zuten Arantzán eta bere garaian la-eguntza handia eman zien On Esteban Irigoien apeza gogoratu eta omendu nahi izan zuten.



Gorka URTASUN
Erremontean txapelidun

Frontoi laburreko Martiko txapelketa irabazi zuten iruritarrek, Errege Eguneko finalean Iñaki Lizasori 30-25 irabazita. Urte eta erdi soilik darma profesionaletan, baina bidea egiten ari da.

Atzera begira → 1991.01.24 / TTIPI-TTAPA 54. zbk



Bidasoko Trena abiatu zela hiru mende laurden bete ziren

«Hiru mende laurden dira abiatu zela Bidasoko Trena» izenburupean, Roman Arribillaga zenak sinatutako erreportajea argitaratu zuen TTIPI-TTAPAK orain 20 urte. Bidasoko trenari buruzko hainbat datu ageri ziren, hala nola, lehen bidaia, 1916ko otsailaren 1ean egin zuela, Irungo Kostorbe estazioetik abiatuta eta Baztan-Bidasoko herriak zeharkatuz hainbat bidaia egin zituen, 1956ko abenduaren 31n betirako gelditu zen arte. Erreportajea laguntzeko argazkiei dagokienez, trena Lekaroz parean Elizondo aldera joaten eta goitian ageri den Lesaka-Etxalarko tren geltokia, Bereaun, argitaratu ziren.



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi-ttapa

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Publizitatea Usoa Vicente, Kulturkari SLU Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Miteo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

M.A.E.A.M-n Komunikatua

Joseba URROTZ

Aldi honetan, ez naiz nire burutazio edo iritziaz solastuko. Berriki mendi tontor batean zapelatz batek idazki bat eman zidan eta berak eskatuta hemen agertuko dut. Honela dio hitzez hitz, eman zidan komunikatuak:

«Munduko Animalien Eskubideen Aldeko Mugimenduak, bere isiltasuna utzi eta gizadiari hainbat gauza azaltzea erabaki du.

Gizakia lurtean azaldu zenean, haragia jan nahi zuela eta, ehizan hasi zen. Hartara, zuekin tratatu bat egin genuen, alegia, guk utziko genizuela gure taldekoak jateko harrapatzen non eta gizaki horiek gu errespetatu eta ondratzen gintuzuen. Onartu zenuten, eta bolada batean tratatu hori errespetatu bazen ere ez zuen aunitzik irauten, eta mendeetan gauzak okertzen joan dira.

Herrialde aunitzetan, zakarkeri, irain eta tratatu txarrak jasan ditugu, errate baterako, zuek 'zezenketak' deitzen dituzuenak, oilar borrokak, ahari lehiak, eta abar.

Eta seguraski okerrena, zuek jan ahalizateko egiten duzuen ekoizketa masibo eta krudela izan da, miloika senide hazitzen baitira bortxan, janari pozoitu eta manipulatuakin egindako pentsuak janez. Gero kamioietan zakarki bide luzean eramaten dituzuenak inongo errespeturik gabe hiltzei hotzetara. Baserri ttiki aunitzetan, kopuru ttikitik bada ere, hor egon dira eta daude zerriak, behiak, oilo eta abarrak, ikuilu ilun, kakaztu eta estuetan gizenzen eta umeak egiten preso.

Gauzak horrela, azienda eta piztiok, ekintzara pasatzea erabaki genuen orain dela urte batzuk.

Guregan hartu eta adibide gisa honako ekintza hauek aipatzen ditugu: zuek 'behi eroak' deitu zenuten kasu hura, non zuek guri eragin diguzuen tratatu txarra eta intoxikazioa itzuli nahi izan genizuen. Berdin oilo eta oilaskoen gripearena eta berze hainbat eritasun zuengana zuzenduak.

Guregan hartzen ditugu baita, zezenen inguruan gertatutako zuen heriotzak ere, eta gisa hortako egin diren eta egiten diren ekintzak.

Gure aldetik egoera bideratzeko prestutasuna agertzen dugu, zuen zerbitzura egoteko prest gaude, baina egoera honek buelta ematen ez duen bitartean, zuek guri egindako mina eta mesprexua, itzuliiko dizuegu».

«Okerrena, zuk jan ahalizateko egiten duzuen ekoizketa masibo eta krudela izan da, miloika senide hazitzen baitira bortxan, janari pozoitu eta manipulatuarekin egindako pentsuak janez, kamioietan zakarki bide luzean eramaten dituzuenak...»

Camilleren esperoan

Luis GARDE

Duela bi hilabete izan zen notizia. Egunduen edo, hobeki erranda, ordu baten notizia: Camille, azken hartz piriniotarra, hil omen da. Zenbait hilabete ikusia izan gabe pasa eta gero, eta ardiaren kontrako erasorik gertatu gabe, hilda dagoela ondorioztatu dute ikuskaritza taldeek. Berarekin batera bukatutzat ematen da Pirinioetako hartz autoktonoa, Camille azpiespezie honen kide azkena baitzen; 2004an ehiztari frantses baten Cannelle, azken hartz emea, tiroz hil zuenez geroztik.

Joan den hogeigarren mendean, Pirinioetan mila urtez bizi izandako hartz espezie autoktonoa murriztuz joan izan zen gelditu gabe, nahiz eta 1980tik honat bai Espainiako eta Frantziako gobernuak, bai Nafarroako, Aragoiko eta Kataluniako gobernu autonomoek ere diru franko inbertitu duten espezie honen biziraupena bermatu ahalizateko.

Frantziaren aldetik, berriz, sartutako Esloveniako hartzak ongi moldatu omen dira inguru horietan. Honek estali du nonbait gure hartzekin gertatutako porrota. Zertan joan da erabilitako dirua, noren sakelerat? Hemen, ohi den bezala, inork ez du eman inolako azalpenik eman»

«Zertan joan da Piriniotako hartz autoktonoaren biziraupena bermatzeko erabilitako dirua, noren sakelerat? Hemen, ohi den bezala, inork ez du eman inolako azalpenik»

Erronkarin nintzen oporretan Camille hartzak han agertu berria zenean, duela hamabi edo hamahiru urteko aste santuan. Ez dut atzendu lagunaren haurren emozioa eta beldurra basoan barna ibiltzen, zuhaitzen enborretan bere atzaparren aztarak ikustean. Azalrik gabeko hutsuneak ukitzera ere ez ziren ausartzen. Gauean, Izaban, loak hartzea lana handia izan zen.

Egia da Camille zahartua eta gaixorik zegoela. Baita ilea galdua ere, hazteriararen ondorioz. Hogeita zazpi urte sobera omen dira hartz bakarti baten zako. Bizimodu gogorra gizakiengandik ihes egiteko indarra kasik ez zuenean. Baina zutabe honetan ez diot adiorik erranen. Ez oso aspaldi gauzak egin behar zirela, egin behar genituela uste genuen aunitzek heredatu dugun mundua aldatzeko. Orain, gizartean konformismoa nagusitu denean, esperoan egotea da jarduerarik ohikoena. Krisi ekonomikoa gainditzearen esperoan, ea berri zoriotsu eta aberats sentitzen garen. (Bigarren) agiri baten esperoan, gure herri jasankorra salbatuko duena. Ni Camillaren azken agerraldiaren zain geratzen naiz, oihaneko eszenatikian bere azken agurraren zain. Ez adiorik.

Irakurleak mintzo

Milesker (Santa Barbara-Larreta gainerik)

Xabier, Loro eta Zubiren familiak

Mila esker izan zera-tenei, mila esker IV. Santa Barbararako igoeran parte hartu duzeren guztiei: antolatzen, prestatzen, mendira joanez, lasterka, oinez, txalotuz, bromak eginaz...

Modu batera edo bertzerara, hor izan zera-ten guztiei: milesker, Xabier-Loro-Zubiren oroimenaren suak bizirik dirau zuei esker, xume, apal, epel, zoragarri.

Baztan-Bidasaldeko jendarteari

Baztan-Bidasoko ELA, LAB eta EHNE

Euskal gehiengo sindikala osatzen dugun ELA, LAB eta EHNE honakoa erran nahi diogu Baztan-Bidasako jendarteari:

-Bi urte daramatzagu, izen-abizenak dituen krisi ekonomiko hau hasi zenetik, eta non langileria izaten ari den kalteordainak ordaintzen ari dena. Bi urte hauetan enpleguaren defentsan hainbat mobilizazio egon dira eskualde honetan, eta Euskal Herri guzian bezala bi greba orokor jarraipen handiarekin

-Gaur egun 1.140 pertsona daude zerren-

datuak Doneztebeko INEMen, orain urtebete baino %8,3 gehiago. Bi urtetan eskualdeko langabezia tasa bikoiztu egin da, kontutan eduki gabe denbora baterako EREak pairatzen ari diren 2.000 langile inguru.

-Egia da orokorrean, krisi hau politiko neoliberalek eskuak libre utzi dizkieten sektore finantzioaren, diru-goseak eragin duela, baina Administrazio eta enpresariak ere aunitzez gehiago egin zezaketan krisiaren efektuak gelditze bidean. Susmagarria da hagitz Nafarroan aurkezten diren ERE-en %98a onartzea Nafarroako Gobernuak, akordio sindikala izan edo ez. Eta zer erran enpresen inguruan. 14 urteetan dirutzarabazi ondotik langileak kaleratzen ari dira inolako arazorik gabe.

-Nafarroako Gobernuak praktikan enpresen administrazio kontseiluen bertze adar bat da, eta ez du inolako arazorik izaten kaleratze kolektiboak sinatzeko Funveran, Saveran eta berriki Marmoles del Baztanen ikusi genuen bezala. Hala ere, plantila murrizketa guztiak ez dira EREen bidez egiten, badaude bertze hainbat modu plantila murrizteko baina hauek ez dira berrietan agertzen. Adibide bezala zenbat langile hasi ziren hain fama handia hartu zuen Elgorriagako balnearioan eta zenbat daude orain?

-Nekazaritza sektoreak ere bizi duen krisia



Bota bertsoa

Maialen CAMINO (Elizondoko bertso eskola) • Doinua:Habanera

Zer eskatzen diozu urte berriari

Hasi dugu mende hontako hamaikagarren urtea berriz pentsatu beharko gure promesen katea armak sakelana gordeta etor dadila bakea itxi dadila gaixotasun ta gosearen atea lege berria jarraituz tabako grina haustea agintariak euskaran sustraiak hazten uztea baina eskari onena ximplea bezain merkea iazko akats berberak berriro ez egitea.

Zaila izan da guretzat aurreko urteko egoera eskubideak ez doaz ez atzera ez aurrera argi dago Gobernuak hartua duen papera gizarteak denon gainerik jartzen du beti norbera urterto bezala hau da herriak duen galdera: Arazoak konpontzeko giltzarria zein ote da? Gaur egungo arazoak utzirik alde batera hobea izan dadila urtearen bukaera.

larria da. Lehen gaien espekulazioak eta ekoizteko betebeharrak zorrotzek ekoizpen kostuak goratu ditu, nekazariak bere prezioak paratzeko boterea erabat galdu du, eta kontrolik gabe inportaturiko produktuekin eta auskalo nola ekoiztutakoekin konpetitu behar du merkatuan. Europako Nekazaritza Politika ez da hemengo gisako mendialdeko baserrien babesle, enpresa multinazionalen eta esportaziorako ekoizle handien laguntzaile baizik. Nafarroako Gobernuari dagokionez, zementuan artean banatu ditu so-

sak nekazaritzaren ize-rian. Honek guztiak gure eskualdean ere lan postuen galera, herrien hustea eta herri baten-tzat hain garrantzitsua den elikagai burujabetzaren galera ekarri du. -Egoera honen auzin, eta sektore finantzioari milaka milioi euro eman ondotik, lan erreforma basati batekin heldu dira, ez dira konformatzen eta inoiz ikusi gabeko lapurreta egin nahi diete pentsionistei. Erraten dute merkatuek agintzen dutela, baina guk badakigu hori ez dela horrela eta 2.035 pentsioek ez dutela deus ikustekorik mugimendu

espekulatio hauen aintzinean. Erreforma honek azalpen bakarra dauka: banketxeen interesa pentsio plan pribatuetan.

-Hau guztiagatik, eta pentsatzen dugulako, Baztan langabeziaren espiral honetatik atera behar dela, zeinak bizitza nahiz lanik gabe paraje bukoliko bat izatera daraman, eta gainera uste dugulako Nafarroako Gobernuari ez zaiola inporta Baztango etorkizuna manifestaldi batera deitzen dugu Baztan-Bidasako jendartearen Elizondon heldu den urtarilaren 22an, eguerdiko 12etan.

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
Zure laguntza eskertzeko **DOKUMENTU-POLITSA** bat isarri duzu opari!

proiektu zenbakia **15.996**

ttipi-ttapa

TTIPI-TTAPAK proiektuaren aurkezpenean laguntza ematen duen erakundearen izena ez da izan proiektuaren izena. TTIPI-TTAPAK proiektuaren izena izan daiteke.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Ate joka ditugu inauteriak

Elgorriaga eta Eratsunen joan den asteburuan egin zituzten. Heldu den asteburuan Leitza izanen dira (urtarrilaren laugarren asteburuan) eta azkeneko asteburuan Sunbilla, Ituren, Aurtitz eta Zubietako inauterien txanda etorriko da.



ARGAZKIA: UTZITAKOA

Leitzarrak baserriz baseri ibiliko dira puxka-biltze eskean urtarrilaren 24 eta 25ean. Astelehenean Gorritzaran, Arkiskil, Sakulu eta Erreka auzoetan, eta asteartean Erasoten.

Aspaldiko usadioa da Europako herrialde askotan inauteriak, iñauteriak, ihauteak, edo ihoteak neguaren hondar al-

dera ospatzea. Euskal Herrian, zaratarekin lurra esnatzeko deia zegoela uste izan da eta, horregatik, ereite ospakizun batekin harre-

mandu da inauteria. Horren adibideak ikusten ahal dira Malerrekan joaldunekin (joareekin zarata eginenez erritmo jakin bati jarraituz),

Arizkungo hartzairen iratzartzearekin edo Altsasuko momotxorroek, adibidez, goldea erabiltzen dutela lurra esnatzeko.

Beste gogoeta batzuek, ordea, udaberriaren hasierarekin lotzen dute inauteriaren ospakizuna eta, horretarako, espirtu txar eta iratxoak uxatzeko zarata handia ateratzeko baimena zegoen.

Kristauek, aspaldiko usadio kulturala bereganatzeaz gain, ospakizunari mugak paratu zizkioten: Aste Santua baino 40 egun lehenago hasi eta haragia uzteko debekua hasten zen egunean bukatuz (inauterietako asteazkena). Kontu horien arabera, hainbat herritan inauteriak martxoaren hasieran izanen dira aurten. 'Orzegun gizen' martxoaren 3an izanen da eta martxoaren 7an eta 8an inauteriastelehen eta asteartea.

besta

tout pour la fête

gara ihauteriak!

- * Euskal jantzi herrikoiak, txapelak, zapiak, ...
- * Petardo eta suziriak.
- * Mozorro eta osagarriak
- * Sariak

irekia astelehenetik larunbatera 9'00etatik 13'00etara eta 15'00etatik 19'30era

Geltokiko karrika, 13 rue de la Gare - 64700 HENDAIA - Tel.+33.559483758

DENAUTO SAGASPER
Tailerra
ongi pasa ihoteak!
Auto konponketa • Citroen autoak • Grua zerbitzua
Eluseder Ind. • ARESO • T 948 510 810 • F 948 510 917

Olaia Bazar
ongi pasa ihoteak!
LEITZA • Elbarran, 36-37 beheak • 948 510 437

LOREAR PAPERTEGIA
JOSTALAN
HERRIARRAK
ESTREKO TRESNEN
JANTZIAK
SANTONDE TRESNEN
PISUAK

LEITZELARREA S.L.
Aroztegi eta Galdereria
ongi pasa ihoteak!
Landa Beikoa Industrialdea, 20
Tel: 948 510 598 • 669 368 991
LEITZA

LEIZA ANAIK
ERAIKUNTZAK
ongi pasa ihoteak!
Lizarraga, 17 • LEITZA
689 231 961 • 660 334 102

Eguzkitza
GOZOTEGIA
ongi pasa ihoteak!
Elbarran • LEITZA
T. 948 510 041 • 948 610 646

MAIMUR
ongi pasa ihoteak!
Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 146

• Prentsa • opariak • testu liburuak
• Plastifikatzeak • enkuadernatzeak
• Inprenta lanak • fotokopiak

EZKAIN eraikuntzak S.L.
ongi pasa ihoteak!
Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956

Inauteriak 2011

LEITZAKO INAUTERIAK | urtarrilaren 21etik 25era



Larunbat eguerdian hasiko dira bazkari eta eskearekin eta asteartean bukatuko atsaureen kalejirarekin

Datorren larunbatean, urtarrilaren 22an, hasiko dira Leitzako ihoteak, nahiz eta eskolako gaztetxoek **ostiral arratsaldean** hasiko diren atsaureen kalejirarekin eta 8:30ean Miren Fernandezek 'Laztantz nauen eskua' diskaren aurkezpenarekin. Larunbatean **eguerdiko 2etan** Aurrera elkarteak **bazkaria** izanen da eskean ibiliko direnentzat. Gero, **arratsaldeko 4ak** aldera, trikitilari, gaitero eta txistulariz lagundurik, egitaraua banatzen eta eskean hasiko dira mozorroak herriko etxeetan. **Iluntzeko 8:30ean**, Atekabeltza Gaztetxeak antolatua, kontzertua izanen da Plazan eta **afal ondotik Karaokea**.

Igandean atsauretuen kalejirak, bazkaria eta dantzaldia
Larunbateko juergatik deskantsatu ondotik, igande **eguerdiko 12etan** atsaureak

Aritzela
DEKORAZIO
TAILERRA
ongi pasa ihoteak!

- Inauterietako telak
- Kortinak
- Telak, barrak, mekanismoak... eta kortinak egiteko pieza gutxiak salgai
- Ohe eta Etxeko jantziak
- Euskarri jantziak

T. 948 61 06 11 - 635 71 39 92
Landa Industrialdea, Suspi 3 LEITZA (Nafarroa)

PERITZA TABERNA
ongi pasa ihoteak eta kontas ibiliri!
LEITZA • 948 610 848



Plazatik aterako dira kalejiran Incansables txarangarekin eta gurdiak industrialdetik. Etxeko txikienek ere izanen dute gozamererako aukera **txu-txu trenarekin** eguerdian eta arratsaldeko 4etan: biribilgunea, eskola, Patxi Arrazola, biribilgunea. Ohitura den bezala, eguerdiko **2:30ean atsauretuek bazkaria** izanen dute eskolako jangelan eta, **6etan**, Incansables txarangak lagunduta, kalejira abiatuko da eskolatik. **Iluntzeko 7etan** hasiko da Gaubela taldearen dantzaldia Plazan eta bigarren saioa ere eskainiko dute **gaueko 11:30etik aurrera**. Ondotik txaranga ibiliko da.

Astelehen eta asteartean puxka biltzea baserrietan

Lagun asko biltzen dira astelehen eta asteartean baserri baserriko eskean. **Astelehen goizeko 9:30ean** elkartuko dira Aurrera parean Gorritaran, Arkiskil, Sakulu eta Erreka auzoetara puxkak biltzera joateko. Talde batekoak txistulariekin eta bestekoak txarangako musikariekin barreiatuko dute ihote giroa puntatik puntara. Baserrietan dabilzan bitartean, herrian, **arratsaldeko 4etatik aurrera**, gaztetxoentzat puzgarriak izanen dira Amazabal pilotalekuan (baliteke jarduera hau asteartera pasatzea). Gero, **iluntzeko 7etan eta gaueko 11:30etik aurrera** Gaubela taldearen dantzaldia eta Incansables txarangaren txanda etorriko da.

Asteartean **goizeko 9:30ean** dute hitzordua mozorroek Erasote auzora abiatzeko eskean. Gaztetxoenek, ordea, **goizeko 11:30ean** Txan magoaren emanaldia izanen dute zinean. **Eguerdiko 2:30ean** eskean ibilitakoek bazkaria izanen dute Aurreran eta **arratsaldeko 6:30ak** aldera, Leitzako Atsaureen kalejira izanen da. Eta aurtengo ihotei errematea emateko, Gaubela taldearen eta txarangaren emanaldiak.

ongi pasa ihoteak!!

JAI-ALAI
ostaturia

T. 948 510 735 • F. 948 510 736
www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak

ongi pasa ihoteak!!

Amazabal, 17 • LEITZA • 629 418 431 • 606 307 810

ONGI PASA IHOTEAK!

Lizarraga
harategia

"GUREA, KALITATEA"

Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

SAGASTI
JATETKEA

ongi pasa ihoteak!!

Elbarren, 98 • LEITZA • 948 610 637

Aliprox

Tel: 948 510 007 - 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa ihoteak!

IRUSO
Ostatua

Arakil • LEITZA
Nalanda

T. 948 307 035
M. 909 013 294

ONGI PASA IHOTEAK!!

GAZTAÑAGA
laberna

ONGI PASA IHOTEAK

OTARTEKOAK
PINTXO BEROAK
KAXUELA
PATATA BRABAK

948 610 708
LEITZA

ongi pasa ihoteak!


Tfnoa: 649 853 440
LEITZA

TXARAGORRI
iturgintza

AiNART
ILEPAINDEGIA

ongi para ihoteak !!

Elbarren, 67 behean • LEITZA • 948 510 197



EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.

Ofertas agroforestales • Ofertas de leña
Bertako eta kanpoko zur-biltegia • Eguna sinke kable bidez ataritzen dugu
Zur-saharria, edukazioak, geroak

T. 948 510 214 • F. 948 510 841 • M. 609 949 130 - 609 949 131
Landa Inet. I eta II • LEITZA • info@zubillagasaralegui.com

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa

Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

Ongi pasa ihoteak!!

ttipi-ttapa
etxean
hartzeko
deitu gure
telefonora
eta eman
zure
datuak



948 63 54 58 • info@ttipi.net

HARATEGIA-VRDAITEGIA
URKIOLA

Elbarren, 94 - Tfnoa: 948 510 467
Elgoien, 6 Tfnoa: 948 510 747

IHOTE ZORIONTSUAK IGARO

ONGI PASA IHOTEAK

MUSUNZAR
OSTATUA
• Jatetxea
• Logelak

Elbarren, 14 - Tel: 948 510 607
LEITZA



Juan M^a BARRIOLA | Altzadi Leitzako Kultur Elkarteko kidea

«Hilabetero zerbait antolatzea izaten da ALKE kultur elkartearen helburua»

Atsaureak prestatzeko tailerra antolatu dute aurten ere Leitzako Atsaureen Lagunek eta ALKE kultur taldeak

Noiz sortu zen Altzadi Leitzako Kultur Elkartea?

Leitzako Kultur Elkartea badaramazki gutxinez 33 urte-edo lanean. Kontua da jende pila pasatu dela, boladaka. Altzadi izenarekin 2007an birstortu ginen. Leitzako Kultur Elkartea erabili izan da baina, ofizialki, ALKE gara: Altzadi Leitzako Kultur Elkartea.

Zer aldatu da garai haietatik gaur egunera?

Uste dut hasieratik bazegoela kultura sustatzeko joera bat Leitzaldean eta, garai hartan, maiatzeko kultur astea izaten zen plater fuertea. Kultur ekitaldiak izaten ziren, hitzaldiak, musika, antzerkia, eskulanean azoka eta beste hainbat gauza. Garai batean Iparraldeko Eguna egiten zen eta bazkari erraldoi bat izaten zen frontoian herritarren eta etortzen zirenen artean. Orain jende gutxiago ibiltzen gara eta saiatzen gara urte guzian hilero zerbait antolatzen. Ilbeltzean inoteriak eta, orduan, inauterien inguruko jantziak, Leiza ingurukoak; otsailean Santa Ageda bezpera; martxoan emakumen aldeko eguna... Hilero zerbait antolatzea izaten da helburua.

Bada bakarren bat bereziki aipagarria dena?

Nagusiena kultur astea izanen da, azken urteotan hamabostaldia bihurtu dena. Aukera hori izan dugu eta aurrerantzean ez dakigu formatu horrek iraunen duen beti baina, aukera dagoen bitartean, horrela segituko dugu. Bestalde, kultur astea izaten da lanik gehien ematen duena.

Joan den urtean antolatutakoari errepasso bat egitekotan, nolako balantzea eginen zenukete?

Baikorra, oso positiboa, gauza pila egin ziren. Zerbait ekitaldi parte-hartze haundikoak izan ziren, adibidez kultur astea eta sagardo eguna, beste batzuk aldiz juxtuago bezala jende aldetik, baina orohar ongi.

Webgune interesgarria du Leitzako kultur taldeak. Hilabetez hilabete antolatzen dituen jardueren berri ikus daiteke hortxe.





Juan Mª Barriola

Urte berriari begira, zer duzue pentsatua?

Egia esan oraindik inoterien antolakuntzan gabiltza eta ez dugu urte osoko plangintzarik egin. Hilabete honetan hasiko gara biltzen eta lehen zirriborroak egiten, datak aukeratu eta lanean hasteko. Berrikuntzak hor ikusiko ditugu. Saiatzen gara herriko beste elkarteekin harremana izaten. Adibidez, kultur asteari begira eskatzen diegu euren aportazioa, kolektibo guziak presente egoteko.

Zenbatetik berritzen da elkartearen zuzendaritza?

Momentu honetan 4-5 lagun ibiltzen gara lanean erabat, batzuetan gorabeherak izaten dira norberaren lanagatik. Antolakuntza haundietan jende askok parte hartzen du

eta, generalean, jendeari laguntza eskatu eta jendeak erantzuten du. Gauza batzutarako 40 laguneko laguntza behar izaten da. Aurrera elkartearekin elkarlanean ibiltzen gara askotan.



Atsaureak, Leitzako ihoten berezitasuna

Urtetan desagertua egon ondotik, berriki berreskuratu dute leitzarrek atsaureen jantzia, soinekoa eta kapela edo buruko berezia duten mozorroa. Denak berdintsu jauntzita aterako dira kalejiran astearte arratsaldean. Desberdintasun bakarra norberak bere burukoari eta soinekoari ezarritako apaingarria izanen da. Azken aste hauetan, leitzarrak buru-belarri ibili dira prestaketa lanetan, eta kapela nola egin ikasteko tailerra egin zuten duela bi aste.

AMAIA arraindegia

 Elbarren, 72
LEITZA
 948 510 590
Ongi pasa ihotek!

KAPRITXO

 Oporiak
 Bitxoak
 Neska eta mutilen arropa
ongi pasa ihotek!
LEITZA - 948 510 748

FISIOETXEA

 Ane Egual Lloita
 Fisioterapeuta
 OPS-NEKOTINA - EN kolektibo pertsona
Ongi pasa ihotek!
 • Bihotze arazoak - Kirok eta Zirkulazio Masajak
 • Erditze arazoak/indareri tratamenduek
 • Elbea arazoak laguntza - Anegorak
 • Osteopatia - Mutsak - Farkularrak
Huarta Gutzia, 93.C - LEITZA - Tel: 948 510 730

TXOKO taberna
 Pintxoak
 Otartekoak
ongi pasa ihotek!
Elbarren, 22 - LEITZA - Tel: 948 510 227

LEITZA Garagea

Peugeot Agentzia
 Elektromekanika, gurpilak, auto klasikoen salmenta eta konponketa.
SALEROSKETA

Stihl Agentzia
Landa Ind. 2 - LEITZA - 948 510 466
Ihote zoriontsuak izaro!!

Ongi pasa ihotek!

Melo Pinturak
T. 609 873 178
LEITZA

KIDE aholkularitza

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autonomoak
- Enpresen sorrerak
- Autoen transferentzia
- Errenta aitortpenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

ongi pasa ihotek!
LEITZA: Landa Ind. Sutzpi 3 • T.948 510 990 F. 948 510 429
DONOSTIA: Bergara 23-1go Erk • T/F: 943 42 03 48

ARAKINDEGIA jatetxea

 Menua - Karta
 garaien garaiko otorduak
Ongi pasa ihotek!
Elbarren, 42 - LEITZA
Tfnoa: 948 510 052 - Faxe: 948 510 633





Inauteriak 2011

ITUREN, AURTITZ ETA ZUBIETAKO INAUTERIAK | urtarrilaren 31 eta ot



Josu SANTESTEBAN | Zubietako joalduna

«Inauterietan ongi pasatzeko gogoia da behar dena»

Inauteriak gain-gainean ditugu. Hemendik astebetera, urtarrilaren 27an, Ituren, Aurtitz eta Zubietan joare soinuak entzuten dira maiz. Heldu den ortzegunean puskak bilduko dituzte etkez-etxe Ituren eta Aurtitzen, baina Zubietan, igandean aterako dira lehen aldiz puxkak biltzera. Hala ere, astelehena eta asteartea izaten dira egun haundiak, eskean ez ezik joareak eta mozorroak ere desfilean ibiltzen direnak. Zubietako joaldunen artean **Josu Santesteban** ikusiko dugu aurtengoan ere. Zubietar aunitzen kasuan bezala, Josu ttikitari hasi zen, hiruzpalau urtekin. «Etxean beti ikusi ditut eta ttikia nintzela paratu zizkidaten joareak lehenbiziko aldiz». Zubietarrentzat asteartea izaten da egunik berezi-ena «joaldun asko biltzen gara eta nire herriko eguna ere badelako». Baina joareak jotzeaz gain, egunen batean mozorrotzeko ohitura ere baduela erran digu. «Mozorrotu ere egiten naiz, normalean asteartean joareak paratu eta astelehenean mozorrotzeko ohitura izaten dut». Zernahi dela, mozorroa prestatzeko ez omen du denbora gehiegirik behar izaten. «Asteburuan bertan prestatzen dut». «Karrozaren bat atera behar baldin badugu, aurreko asteburuan lagunak elkartu eta zerbait egiten dugu». Joareak jotzea eta mozorrotzea, biak gustuko baditu ere, joareak jotzea nahiago du Josu Santestebanek. «Berezia da guretzat, barruan daramagun zerbait da, ttikitatik sortzen zaiguna».

Zubietara etortzeko animatu nahiko nuke jendea, batez ere joareak ezagutzera.

Asteazkenean bukatuko dira inauteriak, otsailaren 2an, eta zubietar aunitzen modu berean, egunero aterako omen da Josu. Egun guziak agoantatzeko ez omen dago sekretu berezirik «ongi jan eta lo egiten dut. Gogoia da behar dena». Astelehena eta asteartean hurbiltzen dira kanpotar gehienak hain ospetsuak diren inauteriak ikustera eta Josu Santestebanek honelaxe luzatu digu guztioi gonbidapena: «Zubietara etortzeko animatu nahiko nuke jendea, gauza polita dela, batez ere joareak ezagutzera. Lehengo ohitura zaharra da eta gure historia pixka bat ezagutzeko gauza polita da. Ohitura zaharra da eta mantendu nahi dugu».

a otsailaren 1ean



URTARRILAK 31, astelehena

Zubietako joaldunak, mozerro eta karrozek lagunduta, **bisita** egiten diete aurtiztarrei **lehenik**. Herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik **Iturenera** joanen dira. Lasagako Zarandia parean, Iturengo joaldunekin elkartu eta herriari buelta emanen diote. Joaldunek aperitiboa hartzen duten bitartean, Iturengo plazan karroza bakoitzak bere ikuskizuna egiten du.

OTSAILAK 1, asteartea

Ituren eta Aurtizko joaldunek **bisita** bueltatuko diete Zubietarrei. Urtero-urtero, batzuen ustez natura ernatzeko eta uzta berri eta ugariak emateko egiten den ohiturari eutsiz.



OTSAILAK 2, asteazkena

Zubietan egun hau izaten da inauterietako azken eguna. Bazkaldu ondotik kontuak egiten dira. Ondotik joareak jarri eta Aurtitz eta Iturendarrei azken bisita egiten zaie ilunabarrean. **Aurtiztar eta iturendarrak** asteazkenean bazkaria eta arratsaldean etxez etxe ibiltzen dira joare eta trikitalariek. Ondotik afariak izaten dira elkarteetan.



OTSAILAK 5, larunbata

Kontuen eguna izaten da Iturenen, hain zuzen, Inauterietako azkena. Egundorretan ez da joareri jotzen. Inauteriak akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Iturenen eta **Aurtizen** igandean. **Iturenen** bazkaria izaten dute Herriko Etxean. Bazkaldu aitzinetik herriko dantzariak bertsolariak eta aizkora apostua izanen dira herriko plazan. Bazkaldu ondotik **dantzaldia** izanen da eta, mozkorraldia izugarria ez bada, bederen, bestarekin segitzeko aukera dago, **afari** eta dantzaldian. **Aurtitzen** xaharren **afaria** egiten dute eta Iturenen kontuen afaria, inauteriak heldu den urtera arte agurtuz

ARRATE **ESTETIKA ZENTROA** *Ongi pasoa inauterietan!*

Alasaje pertsonalizatuak • Manikura • Pedikura
Gorputzerako tratamenduak • Depilazioa • Makillajeak
Aurpegiarako tratamendu pertsonalizatuak
Produkzio-adimena pertsonalizatu eta ihulaketatuz

Intzakardi, 7 | DONEZTEBE | T. 948 450 286

ERRANDONEA
OSTATUA

INAUTERIETAN GIRO PAREGABEA

948 450 216 • ZUBIETA

MADERAS SANTESTEBAN

Ongi pasoa inauterietan!

Mendi lanak
(Finak erosten dira)

Bigak

Montaje obran

Tallaturako egiturak
(in. harria eta elizgaitzak eta geroak)

Osagarriak

Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

ZUBIETAKO UDALA

Zubietako udalak inauteri zoriontsuak opa dizkizue zubietar eta bistari guztiei

Marisol
janaridenda

Karrika nagusia, 7
Tfnoa: 948 450 608
SUNBILLA

LIZUN
GAZTANDEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK!

Sunbilla - Tel: 948 450 862

OREBERRI
okindegia

ongi pasa inauteriak!

690961616 - SUNBILLA

INAUTERIETAN
zure gosari eta bazkariak
ARIZTIGAIN kanpinean!!!
ONGI PASA INAUTERIAK!

Kazulak | Plater konbinatuak
Bokatak | Pintxoak
Menua | Karta

SUNBILLA • 948 450 540 • info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

SUNBILLAKO UDALAK
Inauteri zoriontsuak opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi



Inauteriak 2011

SUNBILLAKO INAUTERIAK | urtarrilaren 28, 29 eta 30ean



Amaia ARRETXEA | Sunbillako Guraso Elkarteko kidea

«Eguberri inguruan eta beranduenik eguberriak pasatuta hasten gara karroza prestatzen»



Amaia Arretxea

Duela 15 urte inguru hasi ziren Sunbillako guraso batzuk igandeko orga desfilean karroza ateratzen euren haurrekin. Urteak pasatu ahala guraso gehiago hasi ziren biltzen eta, azkenean, Sunbillako Guraso Elkartek hartu zuen orga hori prestatzearen ardura.

Urtero karroza berria egiten duzue. Nola sortzen da edo ateratzen da ideia?
Generalean bilera bat egiten dugu, Guraso Elkarteko kide guztiak, komentatzen dugu denen artean nolako ideiak dauden, eta horien arabera botoak ematen dira. Eta boto gehien eramaten duen ideia, huraxe da karrozan ateratzen duguna.

Orduan, ideia aukeratzekoan, gurasoen iritzia nagusitzen da edo haurren iritzia ere zerikusia izaten du azken erabakian?
Normalean bileretan ez da haurrik egoten. Beraz, ideiak gehienbat gurasook proposatzen ditugu eta, gero, botoak ematerakoan, bai eskatzen zaiela iritzia, ea konforme dauden edo zein den barraiei gehien gustatzen zaiena.



Azken urteotan talde handia biltzen zarete karrozan. Gutti gora-behera, zenbat izaten zarete?

Sunbillako eskolan dauden haur guztiekin egiten da. Hala ere, joan den urtean, haundixkoenak nahiago izan zuten karroza bat atera eurek bakarrik, eta ttikienak gurasoekin atera ziren bertze karroza batean. Baina, hala ere, nik uste dut 60-70 lagun inguru bilduko garela guraso elkartearen karrozan.

Hain talde handia izanda, nola egiten da antolatzeko eta lanak banatzeko?

Bilera egiten da, eta ideia aukeratua denean, bakoitzak bere lana hartzen du. Lan gehiena karroza muntatzerakoan izaten da. Normalean pertsona bat edo bi egoten dira lan hori egiten dakitenak, horretarako esku trebea dutenak, eta beraiek eramateen dute karroaren estruktura-eta nola egin. Eta gero, gainera kide guztiak gelditzen gara egunen batean juntatu eta lehenik bi pertsona horiek egin duten lana bukatzen laguntzen diegu, montaketak egiten, pintatzen eta horrelako lanak.

Hori dena egiten denbora dezente joanen da. Noiz hasten zarete karroza prestatzen?

Normalean Eguberri inguruan, eta beranduenik Eguberri pasatuta. Urtarrileko lehenbiziko egun horietan buruz buru hasten gara, hilabete bukaerako dena prest egoteko.

Eguna iristen denean, igande goizean, haur guztiak batera mozorrotzen dira edo bakoitza bere etxean?

Ez, bakoitza bere etxetik etortzen da jauntzia.

Igandeko desfilea luzea izaten da, bi ordu ingurukoa-edo. Zer egiten duzue haurrak formal-fomal aguantzeko, denbora horretan ez aspertzeko?

Ba... ahal dena (irri egiten du). Normalean ez da problemarik izaten, beraiek ere saltza horretan baitaude. Desfilean harat eta hunat ibiltzen gara, musikarekin, gauza bat eta bertzea ikusten, tarteka tortilla pixka bat ematen diegu jateko... eta, normalean, inongo problemarik gabe agoantzen dute. Eta bakarren bat nekatzen bada, karro gainera goitzen dugu edo silletaren batean sartu... eta segi desfilean!

Nork pasatzen du hobekien, haurrak edo gurasoak?

Nik uste dut aski ongi pasatzen dugula bai gurasoak eta bai haurrak ere. Hori odolean ekartzen dugu eta, azkenean, igual zaigu alde batera edo bertzera, haurren kontura edo haurrik gabe, denak gustura pasatzen dugu.

larreta *Ongi pasa inauteririk!*
EJETSU PROIEKTATUA
 Pasa inauteririk! 10 - 2010 (Ere) - 10aketa
 larreta@irrua@gmail.com
 Telefonoa: 627.225.514 | Fax: 637.921.299

SUNBILLAKO TAXIA *Ongi pasa inauteririk!*
8 LAGUNENDAKO LEKUA
 633 466 486 Auzia

IRURI MOTOR

 Aukerako autoak
 4x4 autoetan modelo guztiak
 salerosketa zerbitzua
 Turismo eta furgoneten salmenta
 Iruña-Irun errep. zaharra • SUNBILLA
 Tfnoa: 948 450 399

MARIA JESUS HARATEGIA
Bertako bistorran espezializatua

ongi pasa inauteririk!
 Karrika Nagusia, 1
 SUNBILLA
 T. 948 451 530

Tel: 948 450 773
 Mugikorra: 619 416 999
 Auzoa Baseria • SUNBILLA
ongi pasa inauteririk!
ESPELOSIN eraikuntzak



ONGI PASA INAUTERIAK!

SASOI

eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5
31791 SUNBILLA (NAFARRDA)
T. 948 451 596 | F. 948 456 168
info@sasoi.es

ALZURI

MENDI LANAK • ESKABAZIOAK • GARRAIOAK
ZERRAKURAK • GARBITZE MEKANIKOAK
ZERRAKURA, LUBERRI ETA BELAGIEN
MAINTENIMENDUA

ONGI PASA INAUTERIAK!

Leku-eder, Buztitz • 31791 SUNBILLA • alzuri@yahoo.es
Tel./Fax. • 948 450 504 • 659 867 287 • 699 461 294

ITTURBURU
OSTATUA

ongi pasa inauterian!

Ragoia, 23 • SUNBILLA • T. 948 451 703



LA MASCARA

Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu

Era guztietako osagarrien salmenta

Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



ttipi-ttapa

etxean hartzeko deltu gure telefonora eta eman zure datuak

948 63 54 58 • info@ttipi.net



Inauteriak 2011

SUNBILLAKO INAUTERIAK | urtarrilaren 28, 29 eta 30ean

Igandeko desfilean 13-14 karroza ateratzea espero da aurten ere

Batzuk ortziral goizean hasiko dute inauteri-besta, baserriz baserri egiten den itzuliarekin. Larunbatean karrikan ibiltzeko txanda izanen da. Eta gehienentzat, herritar zein bisitariarentzat, igandeko desfileak bereganatuko du atentziorik gehien.

URTARRILAK 28, ortzirala

09:00 Gazteek **gosaria**. Ondotik, 2 taldeetan banatu eta baserrietara joanen dira, Modesto eta Jose Angel akordeoilariarekin.

Bazkaria baserrietan.

17:00/20:30 Herriko haurrentzako **txokolate beroa eta musika** Agerralde akordeoilariarekin frontoian.

21:30 Eskean dabilzan **gazteen afaria** Ariztigain kanpalekuan.

Gauean Emakumeek afaria Ulibeltzak Elkartean eta ondoren **DJa**

URTARRILAK 29, larunbata

10:00 **Gosaria** Itturburu ostatuan.

Gero karrikaz karrika **eskean** ibiliko dira Modesto eta Joxe Angelekin.

14:00 Eskean dabilzanentzat **bazkaria** Fondan.

17:00/21:00 Umeentzako **berendua** eta musika Agerralde akordeoilariarekin Ulibeltzak Elkartean.

Gauean Eskean dabilzanentzat **afaria** Elor-txurin.



URTARRILAK 30, igandea

11:30 **Karrozen desfilea** opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko dira ikusleen artean.

Gero **Zozketa**: zerrita eta bildotsa.

14:30 **Bazkaria** Ulibeltzak Elkartean.

Gero **Dantzaldia** Jalisko Band taldearekin.



Prentsatik bildutakoak



«[Igor Portu eta Mattin Sarasola torturatzearagatik lau guardia zibil zigortu izana] epaia ona da, bere argi-ilunekin, baina ona. Ez dakigu zigortutako guardia zibilak espetxera joango diren edo ez. Haiek babesten jarraituko dutela ziur gaude, orain arte bezala. (...) Halere, sententzia honen balioa beste bat da. Tortura amaitzeko borrokan tresna garrantzitsua izan behar du epaiak».

Amaia IZKO
Portu eta Sarasolaren abokatua. BERRIA, 2011.01.07



«Ia kirol guztiak gustatzen zaizkit, tenisa, futbola, saskibaloia. Golfa izan ezik, ez baitut sobera ulertzen, ia kirol guztiei segitzen diet. (...) Futbolearen lehendabizi Osasunaren eta gero Bartzelonaren jarraitzailea naiz. Saskibaloian Baskonia ere asko gustatzen zait. Beti izaten da kirolari edo pertsonaren bat gustukoa. Tenisean, (...) beti Ferrereren jarraitzailea izan naiz».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
D.NOTICIAS, 2011.01.10

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenioke jendea-ri nor den Xegone?

Ni naizen bezala, ona.
Negarrez ez dakizula errana duzu. Egia al da?

Ez naiz behartu negar egitera, baina ez da berdina hemen zaudenean eta kanpora gan eta laguntasuna ikusten duzunean. Beti ematen du negargura laguna badaielarik edo sentimendu pixka bat izaten da.

Apustuzalea izanda, gehiago eginen al zenituzke?

Modua balitz eta dirua irabazteko modua balitz bai. Baina Baztan aldean ez da afiziorik.

Zein bertze afizio dituzu?

Beti izan naiz kirolaria.

El conquistador del fin del mundon ikusten zaitugu orain. Nolatan aurkeztu zinen?

Beti erraten nuen

gustatuko zitzaidala gatea, eta animatu zidaten eta gan nintzen.

Zerbait aitzineratuko diguzu?

Ez dut deus erraten ahal.

Lagunak egin dituzu? Eta etsaiak?

Lagun haundiak egin ditut, pozik nago. Etsaiak? Beti izaten da bakarren bat ez duzuna hain gogokoa, edo haren konportamendua ongi iruditzen ez zaizuna...

**Nola ikusten duzu zure burua te-
lebistan?**

Diferente, zeure burua ikustean «kaguen dio, nola niok?», pentsatzen duzu.

**Nola daramazu famatu izate ho-
ri?**

Ez diot inportantzia handirik ematen. Nik beti bezala izaten segitzen dut.

Baztan filmean ere ari zara. Ongi moldatzen zara?

Ustez behinik behin bai, eta gustura ari naiz.

Hemendik aitzinera zer egin behar duzu?

Ikusi behar zer ateratzen den. Hartara tiratuko dugu.



Xegone SAHARREA → 'El conquistador' saioan dabilen zigarra

edredoi fundak
albomozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Aste txuria. Merkealdiak. Urtarrilaren 15etik aurrera

BERA

UDALA → ZERBITZU BERRIA

Egoitza elektronikoa paratu du martxan Udalak

Hainbat tramite egiteko aukera eskainiko zaie herritarrei

TTIPI-TTAPA

Herritarrek udalarekin dituzten harremanak telematikokoaren bidez egiteko aukera ematen duen egoitza elektronikoa zabaldu du Udalak eta horri esker, herritarrek Udalarekin egiteko bidea izanen dute Herritarrendako Harrera Bulegoan egonen balira bezala. Hori dena Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legeak ezartzen duen moduan eginen da.

Egoitza elektronikoa herritarrei informazioa, dokumentazioa eta tramitazioa eskainiko dizkie eta sartu nahi izanez gero, www.berakoudala.net web orrialdeko egoitza elektronikoa atalean klikatu behar da. Honako hau agertuko zaie: Udalaren zerbitzu katalogoa; Udal aktak; Instantzia ereduak; Iradokizun postontzia; Iragarki ofizialak; Izapideetarako sarbidea eta Herritarren karpeta.



Hemendik guttira, egoitza elektronikoa atalean erregistro elektronikoa, herritarren postontzia eta dokumentuen egiaztapena sartuko dira, eta bertze zenbait tramite egiteko aukera ere bai, herritarrei denbora eta joan-etorriak aurreztuko dizkionak.

183 dantzari Gure Txokoan

Talde ederra izanen du aurten ere Gure Txokoa Dantza Taldeak: guztira 183 dantzari. Horietatik gehienak gaztetxoak dira, 5 urtetik 16 urte bitarteko 135 dantzari apuntatu baitira. Helduak dira gainerakoak, 48 denetara. Seguru aurten ere saio dotoreak eskainiko dituztela etxean zein kanpoan.



ARGAZKIA: GURE TXOKOA

Gure Txokoako Eguberrietako saskia

Eguberrien atarian egin zuen Gure Txokoa Elkarteak saskiaren zozketa eta 1.175 izan zen zenbaki saritua. Eta honen jabea Araceli Gallego Santana.



ARGAZKIA: ANDONI ANDUEZA

107 kiloko basurdea

Ilbeltzaren 6an, herriko ehiztari koadrila honek 107 kiloko basurdea bota zuen. Xantellerreka inguruan zebilela, Satur Goiak izan zuen urteko lehen basurdea hiltzeko zortea, gainera Beran hil den basurde handienetakoa izan da.



Hiru Errege Magoak

Ohi bezala, ilbeltzaren 5ean ailegatu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar, euren laguntzaileekin.



ARGAZKIA: GENARO TALDEA

Genaro Taldearen mus txapelketa

Abenduaren 26an jokatu zen Baztan-Bidasoko Realzaleen Genaro taldeak bigarrenez antolatutako mus txapelketa. 34 bikote aritu ziren, eta lehen saria, Etxalarko Herriko Ostatuan dastatze menua, Iratxe Ordoki eta Txema Otxotekok jaso zuten. Bigarren saria, Genaro Taldeak oparitutako Gabonetako saski bat, Karlos Ponbar eta Koldo Oartzabalentzat izan zen eta hirugarren saria, Comercial Satrustegik oparitutako 6 botil txanpain, Agustin Olaziregi eta Antton Eskuderorentzat.

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Ohiko ekitaldiekin joan dira Eguberriak

Urtezahar Egunean urtatzak biltzen neska-mutiko aunitz ibili zen

DATUA

18

BIKOTE

ariko dira Larraburuko magra txapelketan.

ra eta suteetarako lagungarria den liburuxka bat ere badago informazio interesgarriarekin.

Larraburuko mus eta partxis txapelketa

Jokatu dira Larraburuan mus eta partxis txapelketak. Abenduaren 26an egin zen sari bana-keta. Musean, Jesus Ansalas eta Jaime Sanzberro izan ziren txapeldu-nak eta, beraz, txapelak eta trofeoak eraman zituzten etxera. Bigarren Santiago Mitxeltoena eta Jabier Indaburu izan ziren, hirugarren Martin Indaburu eta Kandido Egurze eta laugarren Bautista Goienetxe eta Manuel Arrosamena. Hiru bikote hauek trofeoak irabazi zituzten.

Partxisean, Juliana Elizalde eta Maria Ester Bereauk irabazi zuten eta lore sorta eta kopa bana hartu zituzten. Bigarren Milagros Santesteban eta Maritxu Zubieta izan ziren eta hirugarren Gloria Maia eta Marta Maia. Bi bikote hauek kopa bana eraman zuten. Bazka-

Irune eta Itsaso

Olentzeroren bisitarren ondotik, Urtezahar Egunean izaten da hurrengo hitzordua. Hala, urteko azken egunean, tradizioari segituz, haurrak etxez-etxe ibili ziren urtatzak eskatzen *Ela-ela, nor da nor da* kantatuz. Haur andana ibili zen herrian eta baserrietan eta ttikienek gurasoen laguntza izan zuten.

Egun berean, ohitura den bezala, *Euskal Presoak Euskal Herrira* le-mapean kontzentrazioa egin zen udaletxe azpian. Inoiz baino jendetsuagoa izan zen.

LARRABURUAN TXOKOLATADA

Urtarrilaren 6an, Errege Egunean, txokolatadak ez zuen hutsik egin Larraburuan. 25 bat haur eta guraso bildu ziren eta berendu ederra egiteko aukera izan zuten txokolatearen aitzakian.

Etxalarko Sute Elkarte Interneten

Atal berria sortu dute www.etxalar.org atarian: Etxalarko Sute Elkarte. Herrian sakabanatuak dauden suteen kontra-ko baliabideak ageri di-



ARGAZKIAK: ITSASO ELIZAGOIEN

Haur ugari ibili zen Urtezahar Egunean urtatzak eskatzen, tartean guraso batzuk ere bai.



ARGAZKIA: PATXIKU IRISARRI

Urtezahar Egunean, euskal presoak euskal herriratzeko eskatu zuten hainbat herritarrek.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Errege Egunean txokolatada egin zuten gaztetxoek Larraburuan.

ri batekin eman zioten akabera txapelketari.

Dagoeneko hasi dira hurrengoarekin. Musean hamar bikote eta partxisean zortzi ariko dira. Martxora arte iraunder du magra txapelketa honek.

elika
Dietitika - elikadura

- Ahulkerantz bertertzeko eta nutrizioa
- Dieta pertsonalizatuak
- Gaitura kronikoen ariketak
- Elikadura txapelketa
- Urteko osasun egun
- Egunkoan egiten diren arazoak erantzun
- Trastuak irabazteko eta erantzun
- Herentzako aholkularia

Ikar Andueza Larra
Itza, 6 beheko - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

LESAKA

HEZKUNTZA → EZTABAIDA

Ikastola handitzeko beharrik ez dela uste du Cornelia Lecuona Fundazioak

Irain eskola publikoan 450 leku libre daudela dio Patronatuak ahobatez onartutako idatziak

Aitor AROTZENA

Herriko apezak, alkatetik eta apez laguntzailerak osatzen duten Cornelia Lecuona Fundazio-ko Patronatuak ez du fundazio honen lur eremu batzuk ikastolaren handitze proiekturako bideratzeko beharrik ikusten, «eskariak ez duelako herriak dituen beharrek bat egiten, kontuan hartuz fundazioak, D eredu bera eskaintzen duen Irain eskola publikoan 450 leku libre dituela gaur egun». Hori bai, Otxogorrienean behar diren moldaketa lanak egiten ahal dituela onartzen dio patronatuak ikastolari eta Tantirumairu «babestuz eta lagunduz segituko duela» dio Patronatuaren idatziak, baita 2015ean bukatzen den kontratua automatikoki bortz urteko epeetan lu-

zatu dela ere. Kontuan hartu behar da ikastolak eskaria egin zuela kontratua 30 urterako luzatzeko, hori baita 2015eko Nafarroa Oinez herrian egiteko eskatzen den baldintza eta eskari horren alde agertu zen ahobatez Udala azaroaren 27ko batzarrean.

Bertze aldetik, Fundazioko kideek «azken aldian jasandako ekintzak eta argitalpen faltuak ez direla ulergarriak eta onargarriak» uste dute. Kartelak eta pintadak egiteaz gain, «joera politiko jakin bateko boletinean zuzenean patronatuko kide bat erasotzen zela» salatzen dute, «Torquemadaren jarraitzaile den apez batek herrian aukeratu behar diren hezkuntza ereduak hautatzea onargarria ez dela» baitzioen. Alde horretatik, patronatuak dio, «ez bakarka, ez taldeka ez dugula erabaki eta ez dugula erabakiko aukeratu beharreko hezkuntza-eredua eta eskubide hori gurasoena izan dadin lan eginen duela». Modu berean, Patronatuko erabakiak «ez dituela inolako ideologia politikok baldintzatuko» dio idatziak.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Errege Kabalgata eta Jaiotza Bizidunarekin bukatu ziren Eguberriak eta hasi zen urtea

Olentzerorekin lotura handia duen herria izanagatik, Lesakako neska-mutikoen Erregeekin ere ederki gozatu zuten. Meltxor, Gaspar eta Baltasarren kabalgataren ondotik, Jesus haurtxoa bisitatu eta muxuak eta opariak banatu zituzten. Aureskua, trikitixa taldearen musika eta abesbatzaren doinuak ere ez ziren faltatu Eguberriak agurtzeko ekitaldian.

San Antoneko erromeria igandean

Endara auzoan, garai batean, azienda feria izaten San Anton egunean eta Lesaka, Irun eta Oiarzun aldeko abeltzainak biltzen ziren beraien trastoak ixtera. Gaur egun, hilaren 17a ez ezik, ondoko igandea ere erromeri giroan bizitzen da. Auniz dira aipatutako herri horietatik ez ezik, Bortzirietatik eta bertze herrietatik oinez, bizikletaz, zaldiz nahiz kotxehurbiltzen direnak. Igande honetan, 10:00etan,

11:00etan eta 12:00etan meza izanen da San Anton basilizan eta kanpoko aldean, trikitixa adituz eta dantzatzuz, errokillak eta taloak erosteko, dantzatzeko eta lagunartean trago bat hartzeko aprobetxatzen du jendeak goiz partea.

Herritik oinez joateko, 08:00etan plazatik abiatuta, mendi ateraldia antolatu du Beti Gazte elkarteak. Arratsaldean, behin herrira bueltatutakoan, dantaldia izanen da plazan, 18:30 aldera hasita.

Irain eskolarako atezaina

Izena emandako 69 lagunei azterketa eta probak egin ondotik Elias Bermejo San Buenaventura donostiarra proposatu du epaimahaiak Irain eskolarako atezain izateko. Interesatuak hila-bete bukaera arte izanen du Herriko Etxean beharrezko dokumentazioa aurkeztu eta joan den urriaren erretitua hartu zuen Ramon Etxenikereren lekua hartzeko. Bertzezortzi lagun lan-poltsan sartu dira lau urterako.

XATURETXEA
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Energia - Auzoak
Barrutia, 3^{er} Lesaka
Tel: 948 637 127

BOZZ-AID
LAVANDERIA
Barrutia 11 • T. 948 637 • LESAKA

BIDASOA
TELUKAR - PERTSANA
ESTUMBUK - AUTOMATEKARRA
SERBITURAK - REINVOYAK
T.F. 943 61 50 60
Auzoan Lopez de Ducasari
IRUN - BERRA

Lentena
Barrutia
Mertze
Jantzak
Patxi Matak
Kaifegoria
Beneke plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IGANTZI

AZPIEGITURAK → OBRA BERRIAK

Leihoak aldatu eta biltegian berritze lanak egin dira Biltokin

‘Zuk aukeratu, zuk erabaki’ ekimenetik lortutako dirua erabili da horretarako

TTIPI-TTAPA

Hainbat berrikuntzarekin hasi du urtea Biltoki elkarteak. Nafarroako Kutxako *Zuk aukeratu, zuk erabaki* ekimenarekin, 12.000 eurotik goiti eskuratu ditu eta diru hori hainbat obra egiteko erabili da. Hasteke, ekaina baino lehen garbigailua, hormak egiteko makina eta kamara berria erosi ziren, eta horrez gain, komunean ere zenbait moldatze lan egin ziren.

Berriki, berriz, elkarrearen egoitzako leihoak aldatu dira eta biltegia zolaberritu eta margotu. Igeltsero lanez Talotxa enpresa arduratu da, leihoez Apittu eta margotzeaz Agerre. Abenduan hasi ziren eta joan den astebururako bukatzekoa zuten.

Mus Txapelketa

Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa jokatu da oriziral honetan, urtarrilak 21, Biltoki elkartearen, 22:30ean hasita.

Bi lehendabiziko sailkatuentzat sariak izanen dira: bikote txapel-dunak entrekota eta xanpaina jasoko du eta bigarrenak xerrak eta ardoa.

Obrak

Lehen Herriko Etxea zenaren teilatua berritzeko lanak Egurlan Bortziri enpresari esleitu dizkio Udalak, 54.000 eurotan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Karlos Sein eta Iñigo Telletxeak irabazi dute Bortziritako Gorriak peñak hirugarren aldiz antolatutako mus txapelketa

Bortz herrietako osasunazaleak biltzen dituen Bortziritako Gorriak peñak Bortziritako mus txapelketa antolatu zuen azaroan eta abenduan. Denetara 110 bikotek parte hartu zuten bortz herrietan egin ziren kanporaketetan eta fase bakoitzetik launa bikote sailkatu ziren Eguberri egunean Lesakako Koskillan jokatutako azken faserako. Eta azken fase horretatik txapela herrira etorri zen. Iñigo Telletxea eta Karlos Seinek osatutako bikoteak irabazi zuen txapelketa, finalean Lesakako German Terreros eta Mattin Gonzalezi irabazita.

EUSKARA

Inprimaki eta argitalpenetan euskara erabiltzeko eskatu diote udalek Gobernuari

TTIPI-TTAPA

Nafarroako UEMAKo udalek gutunak bidali dizkiote Nafarroako Gobernuko bi departamentuari, herritarrentzako inprimakiak euskaraz ere egon daitezkeen. Bi departamentuak Landa Garapen eta Ingurumenekoa eta Kultura eta Turismoa dira, eta gutuna bidaltzeko arrazoia sail horien dozenaka inprimaki eta argitalpen euskaraz ez egotea da. UEMAK eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiak bultzatu dituzte gutunak, eta euskaldunen aurkako hizkuntza urraketak ezabatzea du helburu. Gutunetan, Euskari Buruzko Legea hartu dute hizpide. Izan ere, legeak eskualde euskaldunetako herritarrei administrazioekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea aitortzen die, eta hori ezin da uztartu inprimakiak eta argitalpenak gaztelania hutsez egotearekin. Gutunak Nafarroako UEMAKo udalerriguztiek bidali dituzte, tartean, **Arantza, Areso, Bera, Etxalar, Goizueta** eta **Leitzak**.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

ZOANSA
MARKA GUZTIEK KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

BAR
Botxo
OSTATUA

Zelaien • BERA • 948 630 052

UDALA → LANGILE BERRIA

Anjel Urtxegi igantziarrak lortu du zerbitzu anitzetarako lanposturako probetan lehen postua

Langilearen
izendapenerako
tramiteekin
aitzinerara doa
Udala

Nerea ALTZURI

Joan den urtean, Herriko Etxeko zerbitzu anitzetarako lanposturako deialdia egin zuen Udalak. 17 lagunek izena eman ondotik, eta azterketa teoriko eta praktikoak egindakoan, lau lagunek gainditu dituzte probak. Horieta-tik puntuaziorik altuena Anjel Urtxegi igantziarrak lortu du. Hori horrela, bere izendapenerako ohiko bidea segitzen ari da Udala.

HERRIKO ERAIKINEN GARBIKETA

Abenduaren lehenean egindako udal ple-

noan, herriko hainbat eraikinen garbiketarako langilea zehaztu zen. Udalak medikuaren kontsulta, Herriko Etxea, Ludoteka, Baskula eta Eskolaren garbiketa zerbitzua esleitzeko lehia-ketan parte hartzeko epea ireki zuen joan den urtebukaeran. Epearen barne hiru proposamen aurkeztu ziren: Isabel Lukanbio Gonzalez, Eneko Sarrias Zoko eta Luis Andueza Agara herritarrenak, hain zuzen.

Proposamenak aztertu ondotik eta bakoitzak hilabeteko aurkeztutako dirusaria edo soldata kontuan hartuz, eskaintzarik merkeena Eneko Sarrias Zokok aurkeztutakoa izan da. Horrela, Udalak aurtengo garbiketa zerbitzua berari esleitzea erabaki du hilabeteko 1.079,17 eurotan, BEZ barne.



ARGAZKIAK: XABI ZUGARRAMURDI/ I. UGALDE

Giro ederrean joan da Mendi Mutilen Eguna

Berriz ere joan da Mendi Mutilen Eguna. Errege Egunean izan zen Aterpek antolatuta eta aurten On Esteban Irigoien herrian apez egondakoak omenaldi goxo bat jaso zuen. Eguerdiko parte, Gurutze eta Aintzane ahizpen trikiti eta pandero soinuekin girotu zen frontoiraino. Pixkanaka, iragarri baino beranduxeago, jendea hurbildu zen. Donato eta Oihan Larretxea aita-seeak aizkora saio polita egin zuten. Ondotik, trikiti eta panderojolearen doinuak tartean entzun eta gero, On Esteban omendu zuten, bera apez egon zen garaian mendi mutilei eskainitako babesa eskertuz. Oroigarri gisa, Josetxo Taberna eta Pantaleon Errandonea mendi mutil ohien eskutik koadro bat jaso zuen. Sebastian Lizaso eta Andoni Egañaren bertsoak ere izan ziren. Segidan, 80 inguru lagunek tradizioko otorduan eta bazkalondo ederrean parte hartu zuten. Mendi Mutilen garaiko argazki zaharren erakusketa ere ikusgai egon zen Aterpen. Musika, bertsoak, zozketak, umorea, oroitzapenak, malkoak... Denetarik izan zen.



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI

Hiru Errege Magoak bisitan

Urtero bezala, hiru erregeak eta beuren laguntzaileak herrira ailegatu ziren urtarriaren 5ean. Herriko plazan egindako lehen geldialdian, Aitor Telletxea zinegotziak Udalaren izenean harrera egin zien. Ondotik, elizara joan ziren eta ohi bezala, opariak banatu zituzten.

Tel: 948 634 179

ARANTZA

ATERPE
ALBERGIA

ALBERGIA · JATETXEA

Frutas
Verduras
ERANDONEA, ILL.
FRIGORIFEROS DE CALIDAD

BILGEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

SUNBILLA

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Eguberrien ondotik inauteriak ailegatuko zaizkigu hilabete hondarrean

Urtarrilaren 28an hasi eta 30ean akituko dira

Itxaso ARRIETA

Joan dira Eguberriak ere, eta horrelakotan erraten den bezala, guttiago gelditzen da hurrengoetarako. Inguruko herri batzuetan bezala, Olentzeroren etorreraren ondotik, urteko azken egunean, neska-mutikoak urtaskatan ibili ziren bai herrian eta bai baserrietan ere. Taldetan banatuta atera ziren, batzuk apezaren etxetik abiatuta eta berzteak harategi zaharretik.

Bertzalde, Ulibeltzak elkarteak Urtezharrak gauerako antola-

tua zuen afariak ez zuen arrakasta haundirik izan. Jende guttik eman zuen izena eta horregatik ez zen akordeoilaririk ekarri. Lagun arteko afaria izan zen.

Ilbeltzaren 5ean, berriaz, hutsik egin gabe Hiru Errege Magoak bisitan etorri ziren euren laguntzaileekin eta opariz beteta, eta gustura utzi zituzten haurrek. Aurtengoan Jaiotza biziduna egin dutenak Ruben Irigoien, Estitxu Arretxea eta Maren Irigoien Arretxea izan dira.

INAUTERIAK

Dena prest dago inauterietarako, eta herritarren gogoia ere bai, noski. Urtarrilaren 28ko gazteen baserrietako eskearekin eman



ARGAZKIA: ITXASO ARRIETA

Gustura gelditu ziren herriko neska-mutikoak Meltxor, Gaspar eta Baltasarren bisitarekin.

zaie hasiera, eta igandera arte, urtarrilak 30, adin guztietako jendea-

rendako ekitaldiak izanen dira. Inauteriei buruzko xehetasun gehia-

go aldizkariaren gehigarrian aurkituko dituzue.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA
Andregaiaren erramus + elizako loreak + detaileak eginez gero **KOTXEKO LOREAK OPARI**
NARBARTE T. 948 59 22 00
Kantuarako detaileak, Koroak elizara eta karguak hura eramanen dituzte, Koroak eta berriko landareak, zahartzak, patata salga, berriak eta landareak aukera zabala.

2011ko urtarrilaren 11tik aurrera
LA BURUNDESH Getoki karrika, 5 • BERA • T. 948 630 261 - 948 631 008

IRUÑEA - LESAKA - DONOSTIA

	ASTELEHENETIK OSTIALEKERA				LARUNBATA			IGANDEA - JAIOZUNA		
IRUÑEA				18:00			16:30			18:00
LESAKA				18:30			17:00			18:30
DONOSTIA				18:40			17:10			18:40
IRUÑEA	07:00	09:00	14:30	19:00	09:00	15:00	17:30	19:00		
LESAKA	07:10	09:10	14:40	19:10	09:10	15:10	17:40	19:10		
DONOSTIA	07:48	09:45	15:15	19:30	09:28	15:25	18:00	19:10		
			18:18		19:00	18:00				

DONOSTIA - LESAKA - IRUÑEA

	ASTELEHENETIK OSTIALEKERA				LARUNBATA			IGANDEA - JAIOZUNA		
DONOSTIA		13:30		18:30		13:30	18:30			08:30
LESAKA		14:00	18:18*	19:00		14:00	19:00			09:00
IRUÑEA		14:20	18:38*	19:38		14:20	19:38			09:20
LESAKA	08:30	14:30	19:45*	19:45	08:30	14:30	19:45	09:30		
DONOSTIA	08:50				08:50			09:50		
DONOSTIA	09:00				09:00			10:00		
IRUÑEA	09:30				09:30			10:30		

MARIA MILAGROS ELGEZUA
ABOKATUA

LARTEGARIH PARTHULARAAN

Parrakia, 7 behea
31740 DONEZTEBE
Tel eta Fax: 948 430 781
Mugikorra 482 435 837
mielge@hotmail.com



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Putrea karrketan barna

Urtarrilaren 4an udaletxe inguruan zebilen jendeak ezusteko ederra topatu zuen. Putrea bertatik bertara ikusteko aukera izan baitzuten eta batzuk jatera ere eman zioten. Ingurumen Departamentuko guardatek harrapatu eta Askin mendian libratu zuen. Putreak zortzi kilo inguru zituen eta guarden arabera, «seguruenik gosetua zegoen». Ez da putreak inguru honetako herriguneetara hurbiltzen diren lehen aldia, lehenagotik Arraiozen ere izan baitira. Baina orduan, putre gaztea zela aipatu zuten adituek eta Doneztebekoak bi urte inguru omen zituen.

ESKUBALOIA → EZKERREKO PERONEAN LESIOA

Hankan min hartu eta Mundialerako aukerarik gabe gelditu da Niko Mindegia

Otsailaren 5eko ligako partidarako sendatu nahi du

TTIPI-TTAPA

Ezinezkoa izanen da. Ezkerreko hankako peronean duen lesioa dela-eta, Suedian jokatzeko den Mundialetik kan-

po gelditu da Niko Mindegia.

Abenduaren 29an hartu zuen min, Espainiako selekzioaren eta Portugalgoaren arteko lehiaran. Jokatu ezinik, errehabilitazioan ari da orain, eta otsailaren 5ean San Antoniok Valladoliden aurka jokatu duen ligako partidarako errekuperatu nahiko luke.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Amalia Arretxeak 100 urte

Amalia Arretxea Carrionek ehun urte bete zituen urtarrilaren 10ean Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte zahar-etxean. Bere mendeurrena ospatzeko erresidentziako langileen, senideen eta Baztango udal ordezkarien bisita izan zuen Amaliak. Santi Aldako Baztango alkateordeak eta Lander Santamaria zinegotziak lore-sorta oparitu zioten. Amalia 97 urte dituen Clarita ahizparekin bizi da zahar-etxean. Ezkongabea izanik seme-alabarik ez badu ere, Amaliaren ahizpen bidez izan dituen senitartekoen bisita jaso zuen, tartean Arantxa Catalan, Merche eta Arantxa Illunbe Arretxea eta Amaiur Tejero Catalan iloba eta ahizpen bilobena edo Legasako Aurora Arretxea lagunarena.



ARGAZKIA: ERREKA

Urte zaharra Mendaurko tontorrean

Erreka kirol elkarteak urte bukaerako ohiturari eutsi eta Mendaurrera ateraldia antolatu zuen abenduaren 31n. Arrakastatsua izan zen, 100 bat lagun izan baitziren kaxkoan, tartean, herritar aunitz. Kirola eginez urtea agurtzeko gogo hori tarteko, arratsaldeko San Silvestre lasterketan ere parte hartu zuten batzuk. Lasterketari buruz xehetasun gehiago kiroletan. Bertzalde, Elena Mugiro Altuna elizondarra izan da **Erreka Elkartearen saskia** etxera eraman duena.

Paxaka txapelketa

Doneztebetik talde batek parte hartuko du larunbat honetan, urta-

rilak 22, Iruritan hasiko den Paxaka Txapelketa. Josu Juanena, Jokin Arraztoa, Asier Mu-

tuberria, Jabierto Almandoz eta Jokin Apezteak osatu dute boskotea.



ITUREN

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Errege bezperako joare soinuak inauteriak gainean ditugula oroitarazi digute

Hilaren 27ko puxka biltzarekin hasiko dira inauteriak

Arkaitz MINDEGIA

Urtarrilaren 5ean, urtero bezala, goiz-goizetik joareak, larruak, isopoak... prestatzen hasi ziren tiki nahiz helduak. Arratsaldean herriko gaztetxoek Ituren eta Aurtitzen ohiko ibilbidea egin zuten joareekin eta beraien ondotik herriko trikitilari gazteek. Arratsan berriz, Iturengo gazteak ostatuan eta Aurtizkoak elkarrean afari eder baten bueltan bildu ziren. Eta nola ez, afaldu ondotik joareak ez ziren falta izan. Zubietakoak 02:00ak aldera Aurtitzera etorri ziren eta herriari buelta eman, tragoxka bat hartu eta Iturenera joan ziren Aurtizko joaldunekin batera. Han ziren Iturengo joaldunak ere esperoan eta Iturengo itzulia egin ondotik, denak Zubie-



ARGAZKIA: EDURNE MIKEO

Errege bezperan gaztetxoek izan ziren joare soinuak hedatu zituzten lehenbizikoak.

tara joan ziren. Gau polita izan zen eta inauteriak gainean ditugula oroitarazi zigun giroak.

INAUTERIAK

Ortzegunarekin, 27-an, hasiko dira inauteriak, lehendabiziko puxka biltze eta afariarekin. Ortziralean atseden hartu ondotik, larunbat arratsan berriz ere afaria izanen da. Igande goizean berriz puxkak bildu eta bazkari eta afa-

riak izanen dira elkarrekin.

Eta garrantzitsuenak diren hitzorduak urtarrilaren 31, astelehena, eta otsailaren 1eko mo-zorro eta joaldunen joan-etorriak izanen dira. Asteazkena lasaixeago joanen da eta denak elkarrekin bazkaldu ondotik, etxe-etxe ibiliko dira.

Boletoen saridunak

Errege bezperako afarian, Ibintza Kultur

Taldeko boletoen zozketa egin zen. Aurtengoan sariak aldatu egin dira: aurreneko saria asteburu bat landetxe batean bi lagunendako, bigarren saria bainuetxe batean bi lagunendako zirku pare bat eta hirugarren saria Altxunea erretegiaren bi afari.

Hiru sarietatik bi dagoeneko atera dira: lehenbiziko sariko zenbakia 2.841 da eta Irune Altxuri tokatu zaio, bi-

DATUA

1.672

ZENBAKIA

izan da Ibintza Kultur Taldearen zozketako bigarren zenbaki saritua. Oraindik ez da jaberik agertu.

garren zenbaki saritua 1.672 izan da, baina oraindik ez da atera eta hirugarrena 2.892 izan da eta Jabier Anduezarri tokatu zaio. Falta den zenbakia ez bada ateratzen berriz eginen da zozketa.

San Silvestre lasterketa

Maika Ariztegi urtea korrika eginez akitu zuen. Ezagunak dira urtero hainbat lekutan egiten diren San Silvestre lasterketak eta Ariztegi Doneztebekoan hartu zuen parte. Baina ez hori bakarrik, emakumezkoen artean bera izan baitzen txapelduna.

BORTZIRI
UNSION ANIAK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

José I. Gonzalez Enguita
berriak eta fitzadak
tel. 666 235 466

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

OSPAKIZUNAK → INAUTERIAK

Urtarrilaren 30ean hasiko diren inauteriei begira dago herria

Patxiku Mitxelenak du 14 otorduak prestatzeko ardura

Fermin ETXEKOLONEA

Errege bezperako joare festaren ondotik, inauteriei begira jarriak gaude herritarrek, hori baita urteko beste hitzordu nagusietako bat Zubietan. Hilaren 30ean, igandearekin, eginen den puxka-biltzearekin emanen zaie hasiera eta asteazkenera arte, otsailak 2, iraunen dute.

Aipatzekoa da, garai batean San Anton egunarekin egiten zela inauteriak prestatzeko bilerak, otorduak antolatzeke, adibidez. Orain, ordea, ardura hori Patxiku Mitxelenaren eskutan dago. Bera eta bere laguntzaileak izaten dira inauterietako 14 otorduen arduradunak, inauterien aurreko eta ondoko larunbatetako afariak barne, urtarrilak 29 eta otsailak 5.



ARGAZKIAK: BEÑAT ETA OLATZ

Errege Egunaren bezperan, goizean goizetik joareak astindu zituztenak herriko gaztetxoenak izan ziren eta gauean helduek hartu zieten lekukoa.

Urteekin badira aldatu diren beste kontu batzuk ere. Garai batean, inauteriak antolatzeke elkartean arau zorrotzagoak izaten ziren. Elkartean ezin izaten zuten ezkonduak sartu, ezta emakumezkoek ere. Orain, aldiz, badute aukera. Elkartean sartzeko gutxieneko adina 18-21 urtekoa izaten zen lehenago, baina orain 16 urtetan sartzeten dira.

Halere, lehen edo orain, huts egiten ez ditugun ekitaldi horietakoak izan dira beti inauteriak. Eta seguru aurten ere ez dela umorerik faltako.

ERREGE BEZPERA

Arrakastatsua atera zen Errege Egunaren bezperako besta. Egunez, 14 urtetik beherako gaztetxoak herriko etxeetan zein baserrietan joareak jo eta jo ibi-

li ziren, trukean jatekoa edo dirua hartuz. Gauez, berriz, helduen txanda izan zen. Hiru tokitan afaldu zuen jendeak, Herriko Ostatuan, es-talpean eta Errandonean, eta afaldu ondotik, ohiko itzulia egin zuten joareak soinean. Aurtitz eta Iturenen barna ibili ondotik, herrira bueltatu eta 06:00 aldera arte aritu ziren joareak jotzen. 40 bat lagun ateara ziren.

TURISMOA

Bidasoko Bide Berdearen bloga aurkeztu du Bertizko Partzuergoak

TTIPI-TTAPA

Bertizko Partzuergo Turistikoak, Bidasoko bide berdearen kudeatzaileak, eskualdeko azpiegitura bultzatzeko ekimen berria paratu du martxan: Bidasoko bide berdearen bloga, www.viaverdebidaso.wordpress.com. Hilaren 11n egin zen aurkezpena Lesakako Ekaitza ostatu-hostalean. Bidasoko Bide Berdea, baliabide turistiko garrantzitsua izateaz gain, bertakoen zerbitzura dagoen azpiegitura da: herriak komunikatzen ditu modu alternatibo eta jasangarrian, aisialdirako eremua da eta kirola egiteko ere balio du. Blogak, berriz, ikuspegi bikoitza du: turistarentzat informazio euskarria da, baina blog bat izanik, bisitariak bere esperientziak idatz ditzake. Ohiko erabiltzaileek ere berdin erabili ahal izanen dute, informatzeko eta iritziak uzteko.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

EZKURRA

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Urte berria elkarrekin hasi dute hainbat herritarrek eta eratsundarrek

Barranka Ostatuan 62 lagunetik gora elkartu ziren

Fernando ETXEBERRIA

Joan zitzaigun 2010a, eta dagoeneko badira bi aste baino gehiago urte berria ere hasi zela. Horren harira, gogoratu behar du urte zaharretik be-

rrirako urratsa elkarrekin egin zutela Ezkurra eta Eratsungo 62 lagunek.

Barranka Ostatuan elkartu ziren, eta giro eta umore onean, afa-ri goxoa dastatu ondolik, 00:00etan, aurrekoa bezain txarra izan ez dadin eskatuz ongi-etorria egin zioten 2011ri.

Horixe bera desio diegu Ezkurrako herri-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Giro eta umore ederrean hasi zuten urte berria Ezkurra eta Eratsungoek.

tarrei, urte ona izan dezatela, baita TTIPI-TTA-

PA posible egiten duten guztiei ere, erre-

daktore eta irakurle guztiei.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Landetxe berriak

Lehen ere aipatu izan dugu Ezkurrako lehenengo landetxea izango dena erakitzen ari direla, eta argazkian ikus daitekeen bezala, jarri diote txapela dagoeneko. Baina azpimarratzekoa da lehenetik ere badela etxebizitza bihurtutako borda bat ere eta jabeak landetxe gisa erabiltzea erabaki du udako bederatzi astetan. Horretarako beharrezkoak diren baimenak tramitatzen ari da. Argazkian ikus daitekeen bezala, paraje zoragarri batean dago, eta atsedean hartu bidenabar ingurumenaz gozatzeko aukera guztiak eskaintzen ditu.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Basurdeak giltzapean

Gauza jakina da Ezkurrako jendearen artean gehien egiten den «kiroletako» bat ehiza dela, bai usoarena, eta bai basurde, oilagor edota orkatzena ere. Baina ez da sobera ohikoa, argazkian ikus daitekeen bezala, bi basurde toki itxian edukitzea. Ehi-zarako afizio handia duen Ciprianok tratu bikainarekin zaintzen ditu biazienda hauek, bere lehen-go untxi granjan. Hurbiltzen den edozeinek ikus dezake horrela dela.

F. LANGHAS
Akutxalarioa eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

OSPAKIZUNAK → GAZTEENTZAKO FORMAKUNTZA JARDUNALDIAK

Ilbeltzaren 29an emanen zaio bukaera Txapamendi ekimenari Aizarotzen

Egun osoko egitaraua antolatu dute gazte independistek

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko gazte independisten ekimenez, Nafarroako mendialdeko gazteentzako formakuntza jardunaldiak eskaini dira azaroaz geroztik gure eskualdean: Elizondon, Beran, Leitzan, Iturenen, Goizuetan, Arantzan, Lesakan... *Txapamendi* da ekimen honen izenburua, eta ez *txapatu burua* eta *txapak entzunez formatu*, berriz, leloa. Azaroaren 6an abiatu ziren saioak «gaur egun gazteon artean daukagun pasibotasuna eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazte independistak ekimenaren aurkezpenean.

kritikotasun faltari aurre egiteko». Eta bi hilabete beranduago, ailegatzan ari da helmugara ekimena. Hala, urtarilaren 29an Aizarotzen, Basaburuan, emanen zaio bukaera.

EKITALDIAK

Sozio-ekonomia, feminismoa, komunikazioa eta teknologia berriak, Aroztegiako jauregiaren proiektua, Euskal Herria, Venezuela... Hainbat izan dira landu

diren gaiak. Oraindik egiteko dauden jardunaldien artean, urtarilaren 22an Palestinari eskainitako solasaldia izanen da Lesakako Arrano elkartearen, 19:00etan. Ondotik afaria eginen da.

ILBELTZAREN 29AN

Goizean Nafarroako historiari begira emanen zaio eta bazkailondoan etorkizuneko euskal estatuaz eztabaidan ariko dira.

Egun handia, hala ere, Aizarotzen eginen dena izanen da, ilbeltzaren 29an, denetarik izanen baita. 10:00etan gosaria eginen da eta 10:30ean *Nafarroa 1512-2012* izanen da hizpide, Nafarroako historiari begirada emanez. 14:00etan bazkaria eginen da eta 16:00etan euskal estatuaz ariko dira eztabaidan. 18:30ean Break-Dance izanen da, 21:00etan afaria eta akitzeko, 23:30ean kontzertuak.

- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

LEGASA

EUSKARA → KALE NEURKETA

Euskararen erabileraren neurketa egin da azken hilabeteetan herrian

Emaitzak argitaratzean emanen dugu horren berri

TIPI-TTAPA

Aurreko hilabeteetan, euskararen kale erabileraren neurketak

egiten ibili dira. Bi herriar aritu dira ezkutuan neurketa hauek egiten.

Aipatu, bertalde, azkeneko neurketak 2000. urtean egin zirela. Azken honen datuak argitaratzerakoan ikusiko da euskararen erabilera nolakoa den.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zikoina Xixtapor aldean

Ez dira sobera ohikoak izaten zikoinak gure bazterretan, baina urtarilaren 9az geroztik, eta lerro hauek idazterakoan ere hor zegoen, Xixtapor aldean zikoina bat dabil. Hanka hautsia duela ikus daiteke irudian.

Martiko
Pol. Zaien, s/n.
31790 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Antzinatean edukiak eta erretak

DENDA
DENDAKO BARRAKO
ASTELAREN ETXERAKO
ORTZARALERA

8:30etik
12:30era

14:30etik
17:00etara

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Urtatxak

Urteberri egunean, hau da, ilbeltzaren 1ean, eta ohitura den bezala, Urtatxak egin ziren Legasan. Garai batean galtzeko arriskuan egon arren, gero eta jendetsuagoa izaten ari da azken urteotan. Haur asko sortzen ari da eta beraiei esker eta ama-aiten lan eta parte-hartzeari esker, berriro berpizten ari da ekintza polit hau. Goizean 11:30ean elkartu ziren haur eta aita-ama koadrilla eta trikitixa eta pandero soinuaren laguntzaz etxez-etxe kantatzen joan ziren: *Urte berri-berri/ zer ekarri berri/ uraren gaña/ lehena ta azkena./ Itxeko andria ona / nausia hobia / leihuk eta atik ireki ta / bota urtatx, urtatx limon/ hiruna gaztain ta launa giltxaur. / Urte zar, nik atorra zar / maukarik ez niri axolik ez. / Aingeruak gera / zerutik heldu gera / boltsa badugu / dirurik ez dugu / Urtatxak bihar ttugu!*



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eskolako neska-mutikoak Olentzerori gutuna eramatera

Abenduaren 15ean eskolako haurrak Bertizko txondorrera joan ziren Olentzerori gutunak uztera. Olentzerok Bertizko txondorrean lana egiten du. Hurrengo egunean gutunak eraman ote zituen ikustera joan eta gutun guztiak eraman zituela erran ziguten.

GIZARTEA → GIBELERA BEGIRA...

Garai bateko sei kisolabeetatik bakarra dago orain egoera onean

Duela 14 urte Kontzejuak berritu egin zuen

TTIPI-TTAPA

Oinez, korrika, txirrindulan edo kotxean bere ondotik pasatzen gara, baina ia ez diogu erreparurik egiten. Hor dago isilik, bere izena kisolabea da, iraganeko lan neketsuak utzirik dituela, erretiroa hartuta. 1905ean herriko sei bazkidek egin zuten eta duela 14 urte Kontzejuak berritua, orain turistentzat begirune izaten da.

Garai batean, NARBARTEKO herrian sei kisolabe izan ziren, baina orain itxura onean bat bakarrik dago.



UTZITAKO ARGAZKIA

Argazkian ikusten den kisolabea, Kisolabe elkartekoa da. Elkarte hau herriko sei bazkiderena da.

Ez zen nolana hiko lana kisua egitea. Lehenik oteaz, adarraz eta egurraz bete, ondotik, Mokorro menditik ekarritako kareharriak goian jarri eta sua piztu.

Sua hiru egun eta hiru gau pizturik edukitzen zen eta bitartean behoko zulotik egurra sartu eta egurra sartu. Hiru egunen buruan kareharriak apurturik zeu-

den eta kisua prest. Lorturiko kisuari etekin ederra ateratzen zitzaion, nekazariak abonu gisa eta igeltseroek eraikuntzetarako enplegua emanez.

DATUA

1905

URTEAN

eraiki zuten herriko sei bazkidek orain turistentzat arretagune den kisolabea.

Guraso Elkarteko Eguberrietako zozketa

Guraso Elkartearen Eguberrietako zozketaren bi zenbaki sari-tuak hauek izan dira: lehendabiziko saria, Arotxa jatetxean bi lagunentzako otordua, 606 zenbakiarentzat. Eta bigarren saria, saskia, 80 zenbakiarentzat.

 <p>Grupo Tanatorio Taldea IRACHE Maldaerrika S.L.</p> <p>24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN</p> <p>TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA</p> <p>LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK</p>	Bera 948 63 74 04 SAN JOSE BEILATOKIA
	Doneztebe 948 63 74 04 SAN PEDRO BEILATOKIA
	Elizondo 948 58 19 59 FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA
	Leitza 948 63 74 04 LEITZAKO BEILATOKIA
	Lesaka 948 63 74 04 LESAKAKO TANATORIOA

GOIZUETA

AZPIEGITURAK → BIDEGORRIAREN LUZAPENA

Madalenerako Zubitik Olatxorako zatia bidegorri bihurtzeko proiektuari hasierako onespina eman dio Udalak

Alkatearen helburua obrak urte honetan egitea da

TTIPI-TTAPA

Bidegorriaren proiektuari segida eman nahi dio Udalak, eta asmo horrekin erabaki du Madalenerako Zubitik Olatxora doan zatia oinezkoentzako egokitzeko proiektuari hasierako onarpenera ematea. Kilometro eta erdiko zatia da eta gutxi gorabehera hiru metro zabalera. Garai batean zentral elektrikoarentzako ura eramaten zen kanala da bidegorri bilakatu nahi dena. 71.000 euroko aurrekontua du.

Mieljoxe Lekuona alkatearen hitzetan,

«obra hau herriarentzako egokia da. Gainera, Goizuetako errepidea oso estua da eta gero eta jende gehiago ibiltzen da paseoan». 2009an Olaberrik Madalenerako Zubia bitarteko bidea egokitu zen, eta «arakasta handia» izaten ari dela adierazi digu Lekuonak. Honi segida emanez, Olatxora artekoa bidegorri eginez, guztira bi kilometro edukiko litzuke oinezkoen bideak.

Hasierako onespina da Udalak eman duena. Beraz, Aldizkari Ofizialean argitaratu eta alegazioen epea zabalduko da gero. Horren arabera, gehiago edo gutxiago luza daiteke tramitazioa. Edozein kasutan, Lekuonak aipatu digunez, «helburua



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Gazte Txokoa martxan

12 urtetik 16 urte bitarteko gaztetxoek ere badute denborapasarako tokia, Gazte Txokoa deitu dutena, hain zuzen. Adin horretako gazteen artean hutsunea zegoela iritzita, orain urte batzuk, Guraso Elkarteak Udalarengana jo zuen lokal eske eta honek eskaera onartu egin zien. Tokia eskuratuta, auzolanean obra egin ondotik, Eguberrien aurretik zabaldu zituen ateak gune berriak. Inaugurazio ofiziala, berriz, joan den larunbatean, hilak 15, egitekoa zen. Momentuz larunbat eta igande arratsaldean egoten da zabalik, 16:30etik 20:30era, baina ekimenaren bultzatzaileek ez dute baztertu etorkizunean ordutegia zabaltea. Igor Elizegi Guraso Elkarteak lehendakariak azaldu digunez, egoitza «aktiboa» izatea nahi dute eta horren harira antolatuko dituzte ekintzak: ping-pong txapelketa, jokoak, mendi irteerak, graffiti ikastaroa, hamabostean behin zinema emanaldiak... Antolakuntzaren ardura, bestalde, guraso eta Gaztetxekoaren esku dago eta Gazte Txokoko batzordea ere sortua dute, argazkian ageri diren kideekin. Dena den, Gaztetxekoak ez dira beti pertsona berak izaten, txandan ibiltzen baitira. Bestalde, aipatu, Guraso Eskola astearte honetan hastekoa zela. Familia eta teknologia berriez aritzekoak ziren, Urko Mauduiten eskutik.

aurten egitea da».

KOMUNALEN ERABILERA

Komunalak erabiltzeko ordenantza ere onartu du Udalak eta horren arabera, komunalak erabili ahal izateko azienta guztiek sa-neamendua pasatua izan beharko dute. Eta

aldi berean, azientek herrian baratzeak edo kaleak ukitzen badi-tuzte, ordenantzen bidez onartutako isunajaso dute, 30 eurotik 12.000 euro bitartekoa.

Bertso afaria

Gazte Asanbladak antolatuta, bertso afa-

ria egingen da urtarrilaren 28an, ostiralarekin, Umore Ona Elkartearen. 22:00etan egin dute hitzordua eta Julio Soto eta Miren Amuriza ariko dira bertsoetan.

Txartelak Amaiarenean hartu behar dira, urtarrilaren 26a baino lehen.

Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Lanbete olio erabilien kudeaketa baimendua: GNP/23/NA/2004
Hondakin arretakuzko garbiketa baimendua: T/153/NA/2005

ERABILITAKO LANDARE OLIOAREN BILKETA

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es • Zaindu zeure ingurumena!

UDALA → MENDIA

Larreak erretzeko eskaerak otsailaren 25a baino lehen egin behar dira

Baimen eskaerarekin batera, eskritura eta planoen kopiak aurkeztu beharko dira

Kontxi KLABER

Mendian larreak erre nahi dituenak udal-etxean egin beharko du horretarako eskaera otsailaren 25a baino lehen.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da: baimen eskaera beteta, terrenoen eskritura osoaren kopia eta planoen kopia, azken hau lekua markaturik eta katastroaren erreferentziarekin.



ARGAZKIA: GOOGLE EARTH

Larreak erre nahi dituztenek paperak prestatzen hasi beharko dute, laster aurkeztu beharko baitute eskaera.

Udaleko zergen tasa berriak

Urtarrilean 1ean sartu

ziren indarrean Udalak 2011. urteari begira onartuta zeuzkan zergen tasak. Honela era-

baki zuen:

- Hirilurraren gaineko kontribuzioaren karga-tasa, Katastro ba-

lioaren gaineko %0,32 izango da.

- Landalurraren gaineko kontribuzioaren karga-tasa, Katastro balioaren gaineko %0,80 izango da.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko udal zergaren karga-tasa exekuzio materialaren %4a izango da.
- Hirilurraren balio igoreraren gaineko zergan, 2/95 Foru Legearen tarifei, %3,1 eta %15 urte guztietarako aplikatuko zaie.
- Jarduera ekonomikoaren zerga, Foru Legeak onesten duenari 1,4 aplikatuko zaio.
- Zirkulazio zerga, berriz, Foru Legeak onesten duena izango da.



ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE

Errotaldeia z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) | T. 948 45 60 45



Urte berri on!

*Gaur abiatzen dugu 2011ko ibilbidea
berchala nabarituko dituzun hainbat hobekuntzekin
Zatoz gurekin ongi pasatzera!*

www.balnearioelgorriaga.com



LEITZA

MENDI BIZIKLETA → IRTEERAK

Hasi du denboraldia Mendibil BTT taldeak

Urte osorako egitaraua prestatu dute

TTIPI-TTAPA

Mendi bizikleta dute gustuko eta horixe da, hain zuzen, elkartzeko di-tuena Mendibil BTT taldekoak. Mendibil Mendi Taldearen baita sortutakoa da. Zazpi pertsona bildu ziren horretarako: Patxi Astiz, Jon Roda, Hegoi Huarte Katzo, Maxi Benitez Piza, Mikel Landeta, Juan Luis Santano *Wui wui* eta Joanes Zabaleta *Danbolin*, baina orain arte egindako ateraldietan jende gehiago ere ibili da mendi bizikleta gainean.

Hasieran, bakoitza bere kabuz edo talde txikiagoetan ibiltzen ziren, baina bakarrik ateratzeko nagi hori kendu, hobeki pasatzeko eta leku gehiago ezagutzeko helburuarekin elkartzea pentsatu zuten. «Normalean inguruko mendietan ibiltzen gara –diote Mendibil BTTkoek–, gehienetan Plazaolako estazioan gelditu eta handik abiatzen gara. Baina batzuetan autoan sartzen ditugu bizikletak eta bes-

ABISUA HARPIDEDUNARI

Transferentzia bidez ordaintzen duten harpidedunek jakin dezatela aurtengo kuota joan den urtekoaren berdina izanen dela (15 euro) eta nahi dutenean egin dezaketela ordainketa.

te leku batera joaten gara: Goizueta, Lesaka, Andoain... Aurreko egunean autoak nonbait utzi eta buelta autoan ere eginguten dugu».

URTE OSOKO EGITARAUA

Taldetxo hau asteburuero biltzen da eta irteera zail xamarrek ere eginguten ditu, baina urte osorako edozeinek egiteko moduko ateraldiak antolatatu ditu hilabetero. Hilaren 15ean Leitzalarrera egiteko zuten, eta otsailan Leitza, Basakabi, Ezkurrako txabola, Idiazabal, Uitz, Leitza; martxoan Ezkabara; apirilean Elgorriaga, Arantza, Elgorriaga; maiatzean mendi taldekoekin Ulibarri; ekainean Picos de Urbionera; uztailan Leitza-Urroz; abuztuan Urbarasa; irailean Leitza-Adarra; urrian Iratira; azaroan Anbotori buelta eta abenduan Zumaiara. «Eskatzen dugun bakarra bakoitzak bere kasakoa eta pintxazoentzako ordezkioak ekartzea da eta nola ez, umore ona», esan dute.



ARGAZKIAK: HITZA

Hiru Errege Magoen bisita

Urtero bezala eta hutsik egin gabe, Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoak ilbeltzaren 5ean etorri ziren bisitan. Aurreko eguneko gauerdian, berriz, zintzarri jotzea egin zen.



ARGAZKIA: HITZA

Eguberri mugituak Atekabeltzen

Ekitaldi andana antolatatu zituen Eguberrietan Atekabeltz Gaztetxeak: abenduaren 28an hitzaldia (*sexualitatearen eraikuntza lurrinen iragarkietan*), 30ean truke azoka eta talo tailerra eta ilbeltzaren 3an aurten bigarrenez futbito maratoia egin zen.

Agian ateraldiren bat aldatuko dute, baina hau dena segitu edo argazkiak ikusteko sartu Facebooken: *bttmendibilleitza* eta izenak emateko edo edozein gauza galdetzeko idatzi *bttmendibil@hotmail.com*-era.

Zinema

Zinema denboraldiak aurrerajarratzen du. Urtearraren 28 eta 30eko asteburuan, Hill Glucken *Rumores y Mentiras* filma izanen da ikusgai, eta otsailaren 4 eta 6ko asteburuan, David Fin-

cherren *La Red Social*. Emanaldiak ostiraletan 22:30ean eta igandee-tan 19:30ean dira.

Merkatarien sariak

Kaxkabeltza merkatarien elkartearan Eguberrietako zozketaren bederatzi saritik zortzi herrian gelditu dira, sari nagusia izan ezik denak:

- 1. saria, 500 euroko erosketa balea: Jose Fermin Gomez (Areso).
- 2. saria, 400 euroko balea: Pilar Apezetxea.
- 3. saria, 300 euroko balea: M^a Sol Rodriguez.

- 4. saria, 100 euroko balea: Manuel Mories.
- 5. saria, 100 euroko balea: Pakita Zabaleta.
- 6. saria, 100 euroko balea: M. Jabier Alduntzin.
- 7. saria, 100 euroko balea: M^a Jesus Azkarate.
- 8. saria, 100 euroko balea: Katti Sestorain.
- 9. saria, 100 euroko balea: Agustin Zabaleta.

Iñoteak

Larunbat honetan, ilbeltzak 22, hasi eta asteartean, bukatuko dira iñoteak. Xehetasunak gehigarrian.



OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 28TIK 30ERA

Haur eta gazteek karrozak aterako dituzte inauterietako larunbatean

Beste hainbat berrikuntza ere izanen dira

Juana Mari SAIZAR

Aurtengo inauteriak gerturatzeko ari direla eta, herriko gazteek egin dute lan puska programa osatzeko. Lagun Artea

arduratzeko da inauterietan eta aurtengo berrikuntza ugari sartu dituzte inauterietan indartu eta herrikoioagoak egiteko asmoz.

Asteburu osoan ekitaldi anitzak prestatu dituzte, adin guztietako jendeari zuzenduak. Azken urteetan indarra



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hurrengo hitzordu nagusia inauterietarako egina du herriak.

galtzen joan da festa polit hau eta honi buelta emateko gogoz eta ilusioz agertu dira gazteak. Jendearen parte-

hartzea bultzatu nahi dute, eta guztien artean festa ona ospatzea.

NOBEDADE ASKO

Berrikuntza nagusienetakoak igandeko banar lehiaketa eta bertso bazkaria izango dira. Lehenik banar txapelketa jokatu da eta ondoren bazkarian jango dira banarrak. Bazkalosterako lau bertsolarien saioak borobilduko du mahai-ingurua. Haurrentzako ikuskizuna ere egongo da. Bestalde, larunbat arratsaldean karrozak aterako dira ume eta gazteen partetik, eta beste norbaitek ere egin nahi badu gonbita luzatu zaie. Azken berrikuntza, mus txapelketa herrikoia dugu, ostiral gauean jokatu da dena.

WiFi seinalea

WiFi etxean hartu nahi duten guztiek udaltxerara pasahitza eta kodea eske pasa beharko du ostiral hau, urtarrilak 21, baino lehen. Urtean kuota bat ordaindu beharko da pasahitza hartzen denean eta ordenagailu bakoitzeko aplikatu da kuota.

Ehiza postuak garbitzen

Ehiza garaia bukatu dela denbora dextente da, baina oraindik ere ehiza postu batzuk garbitzeko geratzen dira. Epea luzatu eta urtarrilaren 21a da azken eguna dena garbitzeko. Garbitzen ez duenak isun ekonomikoak izango du, azken bilerak aktan adostu bezala.

Gobernuak presakotzat jo du araztegi berriek eragindako ondasunak hartzea

Bi depuradora edo araztegi berriek eragindako ondasun eta esku-bideak hartzea presakotzat jo du Nafarroako Gobernuak, nahitaez desjabetzeko. Hala erabaki zuen hilaren 10eko bilkuran.

Araztegi bat herriguneko hondakin ura tratatzeko izango litzateke –eroldan 282 biztanle daude–, eta bestea industrialdeko hondakin ura tratatzeko –industrialdeko kutsadura karga 300 biztanleri dagokiena da–.

INDUSTRIALDEKOA

Industrialdeko araztegia eraikitzeko aurrekontua 456.956 eurokoa da eta sustatzaileak, Udalak, ordainduko du; obrak egiteko epea sei hilabetekoa da. Orain, NILSA proiektua idazten ari da.

HERRIKOA

Herrian, proiektua sustatzeko izapideak eta desjabetzeak bukatuta hasiko dira obrak, eta hamar hilabete izango dituzte bukatzeko.

Kasu honetan, aurrekontua 765.581 eurokoa da; %80 Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazio Sailaren funtsekin finantzatu da, toki azpiegituren planen bitartez, eta gainerako %20 saneamendu kanona medio –biztanle guztiek ordaintzen dute uraren ordainagirian eta NILSA enpresa publikoak gestionatzen du–.

Bi azpiegiturak eraiki artean, industrialdean lehen mailako tratamendua egingo dute; herriko ura, berriz, Astomela errekarara heltzen zen euri uren sarera isurtzen da. Araztegia eraikitakoan, emari hori 377 metroko hustubide batean barrena eramango da instalazioraino, ura tratatzeko.

Industrialdeko araztegiak bi hustubidetatik jasoko du ura: bat industrialdearen mendebaldetik, eta 137 metrokoa izango da; eta bestea ekialdetik, 75 metroko luzerakoa.

Industrialdeko konponbideak amaieran hezeguneak izango ditu, 30 metroko sakonerakoak eta 220 metro koadroko azalerakoak.

TTIPI-TTAPA 2011 (AURTARRILAREN 28TIK 30ERA)

Can proiektu zenbakia 15.996

Gure Haragia
Nuestra Carne

ABACDEL
Analisi klinikoak

FIATC LAGUN ARTE

Aresa

Hematologia
Odol biokimika
Erreuma probak
Diabetes
GIB serologia
Tiroide
Hormona-probak
Tumore markatzaileak
Gernu-analisiak
Elikagaien intolerantzia

Ramón González-Vallinas
ANALISI KLINIKOETAN ESPEZIALISTA

Istingorra, 1 - behea • 20008 DONOSTIA
T. 943 210 872 • abacdel@yahoo.es
www.abacdel.com

BAZTAN

MANIFESTAZIOA → ELA, LAB ETA EHNE-K DEITUA

‘Baztanen bizi, bertan lan egin’ manifestazioa larunbatean Elizondon

Lur dantzalekutik abiatuko da 12:00etan

TTIPI-TTAPA

Baztanen bizi, bertan lan egin lelopean, manifestazioa egingen da Elizondon larunbat honean, urtarrilak 22, ELA, LAB eta EHNEK deituta, euskal gehiengo sindikalaren ordezkari gisara. Manifestazioa 12:00etan abiatuko da Lur dantzalekuaren paretik. Urtarrilaren 12an Elizondoko Arizkunenean eskainitako prentsurrean deialdia egin zuten sindikatuak aipatu zuten, «Baztanentzako etorkizun duin bat aldarrikatzeko eta Baztanek bizi duen egoera salatzeko» egingen da ekitaldia.

ELAko Xabier Perezek aipatu zuenez, «gaur egun 1.140 pertsona daude zerrendatuak Doneztebeko INEMen, orain urtebete baino %8,3 gehiago. Bi urtean eskualdeko langabe-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Xabier Perez (ELA), Koldo Saenz (LAB) eta Bittoriano Jauregi (EHNE) mintzatu ziren urtarrilaren 12an manifestazioa deitzeko egindako prentsurrekoan.

zia tasa bikoiztu egin da, kontutan eduki gabe denbora baterako ERE-ak pairatzen ari diren 2.000 langile inguru». Nafarroako Gobernuaren praktikan enpresen administrazio kontseiluen bertze adar bat dela adierazi zuen Perezek, «eta ez du inolako arazorik izaten kaleratze kolektiboak sinatzeko Funveran, Saveran eta berriki Marmoles del Baztanen ikusi genuen bezala. Hala ere plantila murrizketak ez dira EREen bidez

egiten, badaude bertze hainbat modu plantila murrizteko baina hauek ez dira berrietan agertzen. Adibide bezala, zenbat langile hasi ziren hain fama handia hartu zuen Elgorriagako bainuetxean eta zenbat dau- de orain?».

EHNEko Bittoriano Jauregi, bere aldetik, nekazaritza krisiaz aritzen: «Lehengaien espekulazioak eta ekoizteko behar zorrotzek ekoizpen kostuak goratu ditu, nekazariak bere pre-

zioak paratzeko boterea erabat galdu du, eta kontrolik gabe inportaturiko produktuekin eta auskalo nola ekoiztutakoekin konpetitu behar du merkatuan». Bere hitzetan, Europako Nekazal Politika ez da hemengo gisako mendi aldeko baserrien babesle, «enpresa multinazionalen eta esportaziorako ekoizle handien laguntzaile baizik». Nafarroako Gobernuari dagokionez, «zementuan bota ditu edo lagunen artean banatu

ditu sosak nekazaritzaren izenean», adierazi zuen Jauregi, baita hau ere: «honek guztiak gure eskualdean ere lan postuen galera, herrien hustea eta herri baten tizat hain garrantzitsua den elikagai burujabetzaren galera ekarri du».

LABeko Koldo Saenzek azaldu zuenez, «sektore finantziarioari milaka milioi euro eman ondotik, lan erreforma basati batekin heldu dira, ez dira konformatzen eta inoiz ikusi gabeko lapurreta egin nahi die te pentsionistei. Erraten dute merkatuek agintzen dutela, baina guk badakigu hori ez dela horrela eta erreforma honek azalpen bakarra dauka: banketxeen interesa pentsio plan pribatuetan». Baztan langabeziaren espiral honetatik aterara behar dela pentsatzen dituzte manifestaldia.

GREBA OROKORRA

Urtarrilaren 27ko greba orokorrean parte hartzeko deia ere egin du te ELA, LAB eta EHNEK.

zalain
JATEOKIEN RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

LARRALDEA
eta
LINDOURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolleria auzoa - LEKAROZ | 948 452121 - 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

ANTXITONEA
Hostaleria

24 inguru banarekin - Apartakalekua
Aste gutxiago gure gurekin - Hain musikala eta TB
Gela berria siskalor eta berri arlozuzanekin

Brañio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

LEGEINTZA → ORDENANTZAK

Baztango Ordenantza berriak onartu ditu Batzar Nagusiak

Bozketan aldeko 21 boto eta kontrako 9 hartu ditu

TTIPI-TTAPA

Baztanek baditu Ordenantza Berriak. Batzar Nagusiak urtarrilaren 3an

egindako isilpeko bozketan aldeko 21 boto eta kontrako 9 jaso zituen.

1967tik ukitu gabe zeuden ordenantzen eguneratze prozesua bi urtez luzatu da. Hasierako ordenantzak 1603-an eginak dira, baina lehendik ere baziren Baztango administrazioa eta

IRURITA

Iruritan, alkatea kontra bozkatzearen alde egon arren, batzarrean herritarrek alde agertu zirelako, berak ere aldeko botoa eman zuen Batzar Nagusian.

herrilurren kudeaketa, erabilera eta aprobetxamenduak gidatzen zituen araudirik.

Batzar Nagusiak berak izendatutako batzorde bat aritu da burubelari orain onartu den testua egokitzen. Herrilurren aferean lan handia egin dela iritzi zioten batzarkideek, baina ordenantzen kontra zeudenak ere baziren, hala nola, Elizondo, Aniz, Oronoz eta Arraiozko alkateak, herri horietako batzarretan ordenantza berrien kontrako botoa eman baitzen. «Aurrekontuak egiterakoan ez da herrien parte-hartzeaz ja agertzen, administrazio guzia berdin gelditzen da eta ez zaio kompetentzia gehiago ematen Juntari, alderantziz

baizik, eta Baztanen dirua gaizki kudeatu da», zioten alkate hauek.

NaBairen ustez, «batzarre batzuetan eta hermen, ezker abertzalearen estrategia bat egon da, ez bakarrik Ordenantzen aferean».

Iruritako kasuan, alkatea kontra bozkatzearen alde bazegoen ere, herritarrei ordenantzen kopia eman eta hauek aztertu ondotik, baiezkoaren alde agertu ziren batzarrean, «baina puntu batzuk gehixeago landu behar direla» uste dute.

Virginia Aleman Baztango alkateak gogorazi zuenez, «ez dira behin betiko edo itxitako ordenantzak, etengabeko garapena izanen dute, baina oinarria eguneratua dago».

Alkateak eta batzarkideak izendatuak

Batzar Nagusian herrietako alkateen izendapenak ere egin ziren. Abenduko hirugarren egandean egindako bozketen ondorioz, **Luis Roldan (Almandoz), Julian Rekalde (Amaiur), Asier Maritorea (Aniz), Sotero Etxandi (Arraioz), Migel Mari Ariztia (Azpilkueta), Pedro Goienetxe (Elbete), Xabi Torres (Elizondo), Xabier Ospital (Erratzu), Pello Obregozo (Irurita), Jesus Angel Gartzia (Lekaroz) eta Pablo Zenoz (Ziga)** atera ziren alkate. Urtarrilaren 2an **Berroetan Kiko Gartxitorena** aukeratu zuten alkate izateko eta urtarrilaren 6an **Gartzainen Leontzio Irungarai**. **Arizkunen** inor aurkezten ez zela ikusirik **Juan Kruz Iriartek** ja-

rraitzea erabaki zuen. Oronoz-Mugairi, aldiz, hautagairik gabe gelditu zen.

BATZARKIDEAK

Kuarteletako eta mendietako batzarkideak ere izendatu ziren. Kuarteletako batzarkideak **Jon Alkaseña (Baztangoiza), Mattari Plaza (Elizondo), Bittor Elizagoien (Erberrea) eta Antonio Barrenetxe (Basaburua)** izanen dira. Mendietakoak, berriz, **Juan Luis Karrikaburu eta Martin Elizalde (Baztangoiza), Mari Jose Iparragirre eta Luis Javier Larnagarai (Elizondo), Jesus Elizegi eta Jorge Oteiza (Erberrea) eta Felix Etxeberria eta Peio Gamio (Basaburua)** izanen dira.



ARGAZKIA: ALMANDOZKO ESKOLA

Olentzero Almandozko eskolan

Aitzineko alean aipatu gabe gelditu zen, baina Olentzerok Almandozko eskolara ere egin zuen bisita abenduaren 22an. Orain, Eguberrietako oporrak akitu eta ohiko martxara itzuliak izanen dira argazkiko neska-mutikoak eta irakasleak.



ARGAZKIA: MERKATARIEN ELKARTEA

Erakusleho lehiaketa

Berandu xamar bada ere, ezin aipatu gabe utzi abenduaren 21ean egin zela Bertan Merkatarri eta Zerbitzuen Elkarteak antolatutako Erakuslehoen Lehiaketako sari banaketa. Saritutako erakuslehoak ondokoena izan ziren: lehendabiziko saria Kattalaingorri arropa-dendarako izan zen. Bi bigarren banatu ziren, Noa eta Ferreteria Quevedorentzat, eta aipamen berezia Ipingiri eman zitzaion. Saridunek bi lagunendako otordua aukeratu ahal izan zuten nahi zuten jatetxean, eta Eskisaroi, Oñaska eta Elbeteko Posada izan dira aukeratuak, hiruak elkarteak. Diploma bana ere eman zitzaion.

BAZTAN

GIZARTEA → GASTUAK ETA SARRERAK

44.800 euroko superabitarekin akitu zuen urtea Elizondoko herriak

Urte berriarekin kargodun berriak hasi dira lanean

TIPI-TTAPA

Ohitura betez, Elizondoko kontuak Errege Eguneko batzarrean aurkeztu zituzten Xabi Torres alkateak eta kargodunek. Herriak 13.393 euroko irabaziak izan zituen 2010ean, baina lehendik ere 31.381,89 euro zituela kontuan hartuz, 44.800 euroko superabita dauka gaur egun Elizondoko herriak.

SARRERAK ETA GASTUAK

Diru-sarrerari dagokienez, 152.189 eurokoak izan dira. Herritarrek ordaintzen dituzten kuotak (38.195 euro) eta Santiago bestak (38.156 euro) dira handienak, baina kontuan hartzekoak dira Udazkeneko Feriak (20.528), hilerriko kuotak (11.704), Orakunde (4.129) eta ortzegunetako merkatuagatik kobratzen denaren erdia (bertze erdia Udalarentzat izaten da), 4.199 euro. Kontabilizatu gabe gelditu dira 16.213 euro, erditsua, kobratzeko gelditu diren herritarren kuotenak eta bertze 6.525 euro Errege Kalgata eta Feria egunerako Nafarroako Gobernuari eskatutako dirulaguntzak.

Gastuak 107.944 eurokoak izan dira. Gastu-

rik handiena Santiago bestek eragin dute, 64.588 euro. Hilerrian 7.849 euro gastatu dira, Orakunden 4.256 eta gastu arruntetan 3.701 euro, fidantzetan 3.678 euro eta Herriko Etxeko aseguruan 1.795 euro.

SANTIAGO BESTAK

Santiago bestetako diru sarrerarik handiena publizitatea izaten da (13.000 euro), Udalak 10.374 euro ematen ditu, zikiro jatean 8.400 euro lortzen dira eta feriantek 4.737 euro ordaintzen dituzte.

Gastuen barrenean, haundiena musika izaten da (17.900 euro), gero zikiro-jatea (8.684 euro), karrika animazioa (7.170 euro), haurrentzako ekitaldiak (6.459 euro), su artificalak eta bazkariak (5.218 euro), egitarauaren gastuak (4.926 euro), betizuak (4.822 euro) eta kirol ekitaldiak (4.778 euro).

KARGODUN BERRIAK

Xabi Torres alkatearekin lanean lehendik zeuden kargodunekin batera, bertze bertz berri ere sartu dira lanerako prest: Eneko Eskudero, Karmentxu Elizegi, Enara Mitxelorena, Iker Frias eta Juan Mari Maia.

Paxaka txapelketa

Larunbat honetan, urtarrilak 22, emanen zaio hasiera Paxaka Txapelketari. Zortzi talde apuntatu dira eta horiekin bi



ARGAZKIA: ONDIKOL

Lehenengoekin batera, kargodun berriak ere lanean hasi dira urte berriarekin batera.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Bixi Arraztoa omendua

Udalaren hainbat alorretan, azken 42 urteotan egindako lana eskertuz, Udalak omenaldia eskaini zion Eguberrietan Bixi Arraztoa Mendikoari. Argazkian Virgínia Aleman alkatearekin eta Santi Aldako zinegotziarekin ageri da Bixi.

multzo osatuko dira. Multzo bakoitzean hiru partida jokatu dituzte eta bi lehenbizikoek finalerdietarako txartela eskuratu dute. Partidak Iru-ritan jokatu dira.

Hasi da sagardotegi denboraldia

Lekarozko Larraldea sagardotegia aukeratu dute aurten Nafarroako 2011ko txotx denboraldiari hasiera emateko. Urtarilaren 14an egin zuten irekiera ekitaldia. Sagar urtea izan denez, «baserrietan ere sagardo aunitz egin dela» aipatu digu Jesus Angel Garcia Larraldea sagardotegiko arduradunak. Eurek 40.000 litro ekoiztu dituzte, «modu ekologikoan».

aroztegia 1890az geroztik



Arotxa

GARAJEKO ATE SEKZIONALAK




Miguel Azcárraga (Irurita)
T. 948 581 418 | 650 532 073
aotxa.taller@gmail.com

UDALA → AURREKONTUA

8,7 euroko aurrekontua izanen du aurten Udalak

Gan den urtekoa baino %12,21 tikiagoa da

DATUA
770.000

EURO
kostako da Elizondoko ur sarearen lehen fasea. Osorik diruz lagundua izanen da, %80 Nafarroako Gobernuak eta %20 Iturri Ederra elkarteak.

TTIPI-TTAPA

Udalak 8.723.035 euroko diru-sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, iaz baino %12,21 guttiago. Hala onartu zuen urtarrilaren 12ko batzarrean NaBairen aldeko 7 botoekin eta UPNren kontrako 5ekin. Kopuru horretatik, Udalar berez 8.065.730 euro dagozkio: 622.004 euro Baztan Ikastolaren aurrekontua baita eta 120.300 euro Francisco Joaquin Iriarte zahar-etxearena.

Gastu nagusienak zerbitzuak eta ondasun arruntak dira (2.405.803 euro), langilegoaren gastuak (2.191.460 euro) eta inbertsioak (1.831.900 euro). Diru sarrera handienak transferentzia arruntekin lortuko dira (2.977.550 euro), zerga zuzenetatik (1.973.000 euro) eta transferentzia eta bertze diru sarreretatik (1.730.485 euro).

INBERTSIOAK

Inbertsioetako dau den 1.831.900 euroetatik, Udalak 546.700 euro ordaindu beharko di-

tu. Nagusia Elizondoko ur sarearen lehen fasea izanen da, 770.000 euro, baina osorik diruz lagundua izanen da (%80 Nafarroako Gobernuak eta %20 Iturri-Ederra elkarteak). Horrez gain, 300.000 euro oihan lanetara bideratuko dira (%80 Gobernuak eta %4 Nafarroako Kutxak ordainduko du); 213.000 euro zaborrarendako kamioia erostera (149.100 euroko subentzia) eta abeltzaintzako toki azpiegiturera 160.000 euro (%51 Gobernuak ordaindua). San Francisco Javier ikastetxeko transformadorea kentzeko 139.000 euroko gastua izanen da.

Horiez gain, hauek dira aurreikusitako bertze inbertsioak: azterketa eta proiektuak (90.000 euro); ikastetxeetako obrak

(50.000 euro, Gobernuak %65eko laguntza emanen du); Gartzaingo batzarre gela (30.000 euro); haurtzaindegia zaharra (35.000 euro); kale izendegi berriaren seinalizazioa (15.000 euro); haur parkea eta karrikako altzariak batetik

eta pisten egokitze lanak bertzetik (bakoitzean 10.000na euro); bertzelako altzariak (3.000 euro) eta Haur Eskolako altzariak eta Musika Eskolako ekipamendua (1.000na euro).

Lau Urteko Azpiegitura Planaren barrene-

an, 2012an Zigako hilerrian eta Almandozko zeharbidean lanak egiten dira, Amaiurko ur depositoa ere egiten da, baita Iruritako ur sarearen bigarren fasea ere. Bideak moldatu eta zaborrontziak erosi ere bai, bertzeak bertze.



TESTUA ETA ARGAZKIA: ARANTXA ZELAIA

Berroetatik berriak

Abendu mugitua izan zen Berroetan. Alde batetik, abenduaren 11n, Gure Ametsa Elkartearen ekimenez, rantxera afaria antolatu zen. Han izan ziren Pantxo Balbuena mexikarra eta Aitor Ibarra Jalisko Bandeko kidea eta eurekin batera, jende aunitz bildu zen giro ederrean mexikanak kantatzeko eta dantzari aritzeko. Euskaraz ere zeozer badakiela erakutsi zuen mexikarrak. Lehendabiziko aldia izan zen, baina arrakasta ikusita seguruenik ez da azkena izanen. Bertze aldetik, laugarren urtez, sukaldaritza ikastaroa ere antolatu zuen Gure Ametsa Elkartek. *Eguberrietako hiru menu berri* izenarekin, Donamariako Bentako Lorea Luzuriagak bere menuak erakutsi zituen eta bildu ziren hamar emakumeak arras kontent gelditu ziren ikasitakoarekin eta, nola ez, dastatu zutenarekin. Urtero bezala, honek ere, arrakasta haundia izan zuen eta heldu den urtean berriz egiteko gogoarekin gelditu ziren. Akitzeko, aipatu, Gure Ametsa Elkartek udaberri aldera V. Asteburu Kulturala antolatuko duela.

Bierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Berritz aztoa · Tfnoa: 948 582 043
ORONOZ · MUGAIRI

ttipi-ttapa aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

SENPERE

KULTURA → LIBURU BERRIA

Musumieleneko Marcel Arribillagaren kantu bilduma liburu batean jaso dute

Oxtikenekoak eta Hatsa elkarteek egin dute lana

Franck DOLOSOR

Musumieleneko Marcel Arribillagaren kantu bilduma 1910ean idazten hasi zen eta ehun urte geroago Oxtikenekoak eta Hatsa elkarte kulturelek bilduma hori plazaratu dute Lekuona etxean saltzeko den liburu batean. Liburu hortan, 100 kanturen bildumaren kopia ageri da, hitzez hitz izkiriatua lehenengo moldean bezala, bai eta gaur egungo ortografiarekin ere.

Arribillaga familia, be-ratarra sortzez, ongi ezagutua da Senperen. Marcel Arribillaga eta bere anaia kantari paregabeak omen ziren eta behiak deitzen zituztelarik jendea egoten omen zen haiek entzuten ehia bazterrean. Beren arreba Marie Jeanneri esker ezagutzerat emandagure ahozko ondarearen bilduma idatziz hori. Eskola emaile ezaguna, Jean Barbier erretorearen idazkaria eta elizan organo jolea zen *mademoiselle* Arribillaga. Aipagarria da Aita Piarres Lafitte euskaltzaina zenak bilduma hori baliatu zuela *Charamela*, *Kantuz* eta *Kantu Kanta Khantore*

ABONAMENDUAK

TTIPI-TTAPA etxean hartzeko 2011ko abonamenduak 55 euro balio du. Ados baldin bazaudete, eskertuko genuke txeketa TTIPI-TTAPAREN izenean bete eta postaz igortzea. Txekearekin batera, aldizkariarekin jasoko duzuen orria zuen datuekin bete eta igorri behar da. Mila esker!



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Liburuaren egileak bilduak: Panpi Zamora, Maixan Arribillaga (Mauchamp), Auxtin Zamora, Michel Arribillaga eta Michel Mendiboure.

bildumen osatzeko. Senpere hobeki ezagutzeko molde berria dugu...

Olerkarien eguna

Aurtengo olerkarien eguna apirilaren 2an ospatuko da Hatsa elkartearen inguruan. Xehetasunak: <http://olerkarieneguna1.blogspot.com>.

Bertzalde, Hatsaren Poesia 2011 olerki bilduman parte hartu nahi dutenek beren testuak igor ditzakete helbide elektronikoko huntarat: hatsaelkar-tea@aol.com.

Herriko lanak

Aurten lan andana egingen da herrian. Otsailan, Herriko Etxeko haunditzearen lanak hasiko dituzte. Gero, buruila aldean, herriko langileen tailerrak berrituko dira. Gaur egun 200 metro karratuko biltegia du-

te aintzirako bidean, eta lanen ondotik mila metro gehiago baliatuko dituzte. Errebote nagusiarri ere freskaldia emanen zaio 400 jarleku berri eginez eskuin aldean. Turismo bulegoaren aitzina ere berrituko da plaza atseginagoa sortzeko.

5 400 senpenter!

Gero eta herritar gehiago bizi da Senperen. Berriki egin den zenbaketa ofizial batek zion 5 100 lagun bizi zirela, baina duela guti andere auzapezak onartu du egiazki 5 400 herritar daudela nunbait han. Ondoko urteetan ere herria haziko da eta 2020an 7 000 lagun inguru izanen omen ditu. Gaur egungo gehiengoko hautetsiek diote beren asmoa ez dela 10 000 herritarren mugat hartzea.

Suhiltzaileak erne

Bururatu berri den urtean 539 ateraldi egin zituzten herriko suhiltzaileak, horietako bat zinez hunkigarria Malville mutikoa sortzen lagundu baitute. Nini horren amak ez zuen astirik izan ospitaleraino gateko eta bide bazterrean berean sortu zen mutikoa herriko suhiltzaileen laguntzarekin.

Aurten bi tresna berri baliatuko dituzte: lehena edozoin ateraldi egin ahal izateko, eta bigarrena bi-deetako istripuetan edo suteetan lan egiteko. Aldaketak ere badira taldean Julien Ubiria kapitaina baita orain, eta Jean Pascal Jorajuria major delakoa. Beren aldetik, Peio Behasteguy eta Michel Errandonea saristatuak izan dira duela 20 urte sartu baitziren suhiltzaileen taldean.

MONTXO OSTATUA

Dantxarinetik 2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • VRDZVBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

HERRIKO KONTSEILUA → OBRAK

Portuko bidegurutzeko lanak primaderarako bukatuko dira

Somabat enpresa arduratuko da obraz

Joanes GARCIA

Segur aski ohartuak zareten bezala, lurrean xuriz tintatua zen Portuko bidegurutze xar-manta obretan izanen da. Jadanik platana pare bat botaiak izan dira. Somabat enpresak zuzenduko du obra Kontseilu Orokorrarentzat. 15 urtez proiektu gisa egona zena egi bihurtuko da heldu den primaderan.

Bertzalde, Argango auzoan ur higatuak biltezeko hodiak ezarri behar dira eta horren ondorioz, urtarrian auzora sartzeko trabak iza-

nen dira. Lanak Hiriart enpresak bururatuko ditu. Informazio gehiagorentzat Herriko Etxerat dei daiteke: 0559 542028.

Herriko Kontseiluak baditu bertze erabaki batzuk ere hartuak. Hala, Pikasarriko bordako elektrikaren armarioa arraberrituko da eta Hegimear auzoan herriko gasa ezarriko da. Herriko lurretan ari diren zortzi laborariei bailak arraberrituko dizkiete eta Koanenbordako arditurgia berrituko da. Kanpoaldean eremu haundi bat hetsiko da kabalen artatzeko.

Mendi ateraldiak

Zangoak Arin elkar-teak mendi ateraldiak antolatu ditu. Zortzi kilometrako egun erdikoa

urtarrilaren 25ean, astearte, Suhalmendiruntz abiatuko da. Beste bi irteerak egun oso-

koak izanen dira. Bata ortzegun honetan, urtarriak 20, Arranomen-dira eginen da, eta ber-

tzeak hilaren 27an Zugarramudiren itzulia egiteko parada emanen dauku.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sarako Izarra taldeak liburuxka aurkeztu du

80 bat lagun –izan jokalaria edo laguntzaile– elkartu ziren abendu bukaeran Animainiko errugbi zelaian egin zen erakustaldian. 30 orrialdeko liburuxka kaleratu du Sarako Izarrak eta taldearen bizia deskribatua zauku, argazkiek lagundurik. Ttipienetatik abiatuz lehen ekipa arte taldea egiten duten 130 lizentziadunak aipatuak dira. Horrez gain, aurten joan diren eta taldetik hurbil ziren pertsona batzuk omendu nahi izan dituzte, hala nola, Pantxo Barneix, Patrick Fagoaga, Beñat Iraola eta Antoinette Etcheverry. Patxi Jauregi lehendakariak aurteratu digunez, proiektu potolo bat dute aurtengoan: Euskal Herriko zazpi probintzien arteko lehen errugbi txapelketa antolatzea. Xehetasun gehiago emanen daukigu ondoko asteetan. Aipatu, bertzalde, urtero bezala, Sarako Izarra errugbi taldeak **mus txapelketa** antolatu duela. Larunbat honetan, urtarriak 22, iraganen da 14:00etan Omordian. Hala ere, izen-ematea lehenagotik egin beharko da, 13:30etik aitzinera eta bortz euro ordainduta. 20:00etan afaria izanen da, 20 euroren truke.

ABONAMENDUAK

TTIPI-TTAPA etxean hartzeko 2011ko abonamenduak 55 euro balio du. Ados baldin bazaudete, eskertuko genuke txeketa TTIPI-TTAPAREN izenean bete eta postaz igortzea. Txekearekin batera, aldizkariarekin jasoko duzuen orria zuen datuekin bete eta igorri behar da. Mila esker!

Opotriren ondotik bertze ere ZABALIK

948 630 981 | 620 828 757

BERA - NAFARROA

250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa • 20004 IRUN • Tfnoa 943 623 130

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

www.facebook.com/ttipi.ttapa

Pintura dekoratiboa eta industriala • Pintadak • Barmesdeak
Dekorazioak: estukoak, beladurak
Lakatsa eta barmesdeak kabinak • Pladurak
Hartu eta eguna arrendatzen gaituzen da

Ibur-ttapi etxea - Landibar Auzoa • 31711 URDAZUBI
Tel: 659 862 417 • pinturasalzuyet@yahoo.es

HERRIKO ETXERAKO EDXNTEGIA

T: 0559342519

Mozan eta Warrapue

SARA

GIZARTEA

HERRIZ HERRI → BIZTANLERIAREN GORABEHERAK

50 bizilagun gehiago eskualdean

Bortziriak eta Malerrekak goiti egin zuten, Leitzaldea berdin mantendu eta Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdik beheiti

TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA aldizkariak Nafarroan hartzen duen eskualdeak 26.932 bizilagun zituen 2010eko urtarrilaren 1ean, urtebete lehena go baino 50 gehiago. Halaxe ondoriozta daiteke udal erroldako datuei erreparatuta.

ESKUALDEKA

Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdi aldean, 59 bizilagunetan beheiti egin du kopuruak, udalerrri guzietan beheiti egin baitu.

Bortzirietan, aldiz, herri guzietan goiti egin du eta 66 bizilagun gehiago dira.

Malerreka eta Bertizarana aldean gorabehera handiagoak dira. Donezteben eta Sunbillan 52 bizilagun gehiago daude (Doneztebe da portzentaje gehien irabazi duena, kasik %2,5) eta Bertizaranan 2 gehiago. Herri ttikiei dagokienez, denetarik izan da eta batzuk goiti eta bertze batzuek beheiti egin dute.

Leitzaldean berdin mantendu da populazioa, baina Leitzak bakkarik egin du goiti, Areso berdin mantendu da eta Goizuetan eta Aranon beheiti egin du bizilagun kopuruak. Arano da, gainera, portzentaje handiena galdu duena, urtebetean bizilagunen kasik %9.

SARA ETA SENPERE

Iparraldean bortz urtetik behin eguneratzen dituzte datuak. Sarako Herriko Etxean eskura dituzten azken datuen arabera, 2.314 biztanle dira. Senperen kasuan, berriz, berriki egin den zenbaketak 5.100 lagun bizi direla kaleratu du, baina auzapezak 5.400 direla errana du.



BIZTANLERIA HERRIZ HERRI

UDALERRIA	2010.01.01	2009.01.01	ALDAKETA	%
ARANO	122	134	-12	-8,96
ARANTZA	647	641	+6	+0,94
ARESO	277	277	0	0
BAZTAN	8.081	8.127	-46	-0,57
BEINTZA-LABAIEN	249	253	-4	-1,58
BERA	3.730	3.691	+39	+1,06
BERTIZARANA	647	645	+2	+0,31
DONAMARIA	438	433	+5	+1,15
DONEZTEBE	1.688	1.647	+41	+2,49
ELGORRIAGA	221	224	-3	-1,34
ERATSUN	159	165	-6	-3,64
ETXALAR	827	823	+4	+0,49
EZKURRA	163	169	-6	-3,55
GOIZUETA	778	780	-2	-0,26
IGANTZI	632	629	+3	+0,48
ITUREN	502	497	+5	+1,01
LEITZA	2.934	2.920	+14	+0,48
LESAKA	2.822	2.808	+14	+0,5
OIZ	151	149	+2	+1,34
SALDIAS	116	119	-3	-2,52
SUNBILLA	670	659	+11	+1,67
URDAZUBI	361	368	-7	-1,9
URROZ	190	191	-1	-0,52
ZUBIETA	315	315	0	0
ZUGARRAMURDI	212	218	-6	-2,75
GUZTIRA	26.932	26.882	+50	+0,18



Xanti Iturbide Almandoz

2004ko otsailaren 23an
VII. urteurrena.

Mikel Iturbide Matxikote

2007ko ibeltzaren 24an
IV. urteurrena.

Urte zaharra joan da,
berria du ekarri,
ta hurrengo honekin ere
urtemuga etorri.
Zuen falta honetara
nola, bada, jarri?
horixe da oraindik
ez duguna igarri.

Xanti eta Mikelen familia.
Igantzi, 2011ko ibeltza.

HERIOTZAK

Juana Altamira Goizueta, Goizueta-koa, urtarrilaren 8an, 86 urte.
Juan Mindegia Ariztegi, Oizkoa, abenduaren 23an, 85 urte.
Juliana Etxeberria Etxenike, Erratzukoa Elizondon, abenduaren 23an, 92 urte.
Juan Andres Goñi Olaetxea, Lekarozkoa, abenduaren 24an, 82 urte
Fermina Soubelet Mendiburu, Arizkungoa, abenduaren 24an, 75 urte.
Encarnacion Arraztoa Etxenike, Arraiozkoa, abenduaren 25ean, 95 urte.
Mª Carmen Lazkano Zabaleta, Leitzakoa, abenduaren 27an, 75 urte.
Juan Jesus Pikabea Manterola, Doneztebekoa, abenduaren 29an, 76 urte.
Bonifacio Pernaute Telletxea, Elizondokoa, abenduaren 30ean, 91 urte.
Kristina Telletxea Sarratea, Doneztebekoa, abenduaren 30ean, 77 urte.
Gerardo Iribarren Agirre, Erratzukoa, urtarrilaren 1ean, 72 urte.
Francisco Jabier Saenz Ullate, Leitzakoa, urtarrilaren 1ean, 77 urte.
Mª Francisca Ordoki Iturria, Lesakakoa, urtarrilaren 3an, 81 urte.
Klarita Irigoien Etxebeste, Igantzikoa, urtarrilaren 5ean, 47 urte.
Mª Jesus Irigoien Zubieta, Etxalarkoa, urtarrilaren 6an, 81 urte.
Antonio Urrutia Bikondoa, Iruritakoa, urtarrilaren 9an, 91 urte.
Fernando Mugika Etxebertz, Urdazubikoa, urtarrilaren 9an, 77 urte.
Julian Elizalde Jaimerena, Arizkungoa, urtarrilaren 10ean, 71 urte.
Bernardo Aldabe Telletxea, Sunbillakoa, urtarrilaren 11n, 87 urte.
Bautista Zubiria Apeztegia, Lesakakoa, urtarrilaren 12an, 74 urte.

SORTZEAK

Enaitz Goñi Iguzkiagirre, Doneztebekoa, abenduaren 24an.
Oihane Ariztegi Taberna, Oizkoa, abenduaren 22an.
Iradi Opoka Iriarte, Narbartekoa, abenduaren 20an.
Aritz Aizkorbe Herrera, Goizuetakoa, Abenduaren 29an.
Mara Lizarraga Cerrato, Leitzakoa, abenduaren 20an.
Alaia Telletxea Buldain, Leitzakoa, abenduaren 25ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Xabier ZUBIETA ERKIZIA
Luis Mari PIKABEA ZUBIETA
Xabier SARALEGI ALTZATE



IV. URTAMUGA
Arantza, Bera, Lesaka

*Gailurra edo magala, zein ikusmira zabala
maitatzen segiko zaituztegu, zuek mendia bezala.*

ETXEKOAK.



Fermin
IBARRA AGESTA
Sunbillan hil zen, 2010eko otsailaren 6an
I. URTEURRENA

*Gure gau ilunak
argituko dituen izarra,
buruan bueltaka dabilen
irriaren oihartzunaren islada.
Zu gure bihotzean
beti altxatuko dugun
Fermin maitea zara.*

EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA ILOBAK
Bere urteurreneko meza otsailaren 6an
eginen da Sunbillako Elizan, 10:00etan.

GIZARTEA

ARRANTZA → MAIATZAREN 1ETIK EKAINAREN 30ERA

Hiru urteko debekuaren ondotik, berriz ere amuarrainak arrantzatzeko aukera

Arrantzale bakoitzak bortz egunez egin dezake arrantza

TTIPI-TTAPA

Nafarroako mendialdeko arrantzaleek bi berri batean jaso zituzten urtarilaren 4an Begoña Sanzberro Nafarroako Gobernuo Ingu-rumen kontseilariaren aholik. Berri ona: hiru urteko debekuaren ondotik berriz ere arrantza egin ahal izanen dela sasoi honetan. Berri txarra, arrantzale bakoitzak gehienez bortz egun izanen dituela arrantza egiteko.

Horretaz gain, hiru urteko debekuaren eraginez, amuarrain kopurua bikoiztu egin dela jakinarazi zuten Gobernuo ordezkariak. 2007an Hektareako 1.635 amuarrain zenbatu zituzten eta 2010ean, Hektareako 3.347 amuarrain. Hain zuzen, maila «normala» kontsi-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Hiru urtez egon dira arrantzaleak amuarrainak arrantzatzen ezinik.

deratzen da, kopuru hori 2.000 eta 4.000 amuarrainen artean dagoenean. Aurten, maiatza eta ekainean 27.966 arrantza-pase emanen dituzte Nafarroako mendialdeko erreketan arrantza egiteko. Horietatik 9.724 Baztan-Bidasoalderako izanen dira. Maiatzaren 1etik ekainaren 30era arrantzatzen ahal izanen da, astearteetan izan ezik. Beraz, arrantzarako 52

DATUA

3

AMUARRAIN
arrantzatzen ahal izanen
ditu bakoitzak eguneko.
20 zentimetro baino
gutiago dituztenak
errekaratu bueltatu
beharko dira.

egun izanen dira, baina arrantzale bakoitzak gehienez bortz baimen eskatzen ahal ditu telefonoz edo Internet bidez eta eguneko hiru amuarrain baino gehiago ezin izanen ditu eraman. 20 zentimetro baino guttiago edo 35 zentimetro baino gehiago dituzten amuarrainak errekaratu bueltatu beharko dira.

IZOKIN DENBORALDIA
Izokin denboraldiari da-

gokionez, 2010ean errekan goiti joan diren izokinak kontuan hartuz (500 inguru), aurten 39 izokin arrantzatzeko baimena emanen da (iaz 20 izokinekin itxi zen denboraldia). Sasoi maiatzaren 1etik uztailaren 17ra arte izanen da, edo bertzenaz, 39. izokina arrantzatzera koan itxiko da.

FORMAKUNTZA DONEZTEBEN

Aurtengo bertze berrikuntza Doneztebeko kirol arrantza edo heriotz gabeko arrantza eskola izanen da. Doneztebeko Udalak eta Ingu-rumen Departamentuak sinatutako hitzarmenaren ondorioz, arrantza formakuntza eskola hau Doneztebe zeharkatzen duten hiru erreketan eginen da, Ezkurran, Ezpeluran eta biak elkartuta sortzen den Galbaraialden. Momentuan ez da bertze daturik, baina denboraldia hurbiltzen denean jakinaraziko direla aipatu dute.

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Jose Luis B. Carriz
Tfno/Fax: 948 630 018
Karrionberri 12 • BERA

sarobe
geotologia olinologia
Ez da estegia 25 bajo
948 630 018
1948 630 099
www.sarobe.net

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomosk
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontraburako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

LASTERKETA → LORO, ZUBI ETA XABIERREN OMENEZ

51 bikote atera dira Beran Santa Barbarako IV. Igoeran

Urtarrilaren 8an bertze hainbat lagun atera ziren ibilaldi gidatua korrikariak animatzeko

TTIPI-TTAPA | BERA

Santa Barbarako Igoeraren laugarren edizioa egin zen urtarrilaren 8an Beran. Dagoeneko lau urte pasatu dira Manttale Mendi Lasterketa Taldea, Agerra Mendi Taldea eta Gure Txokoa Elkartearen antolatzen hasi zirela, Tailon mendian hil ziren Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegiren omenez. Arratsalde ederren prestatu zuten aurretik ere, sei kilometro eta erdiko lasterketa egin eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Bikoteen artean, Berako emakumeen atletismo eskolako aunitz izan ziren.

ikusi nahi zutenentzat. Gainera, aurretik eguraldiak ere lagundu zuen eta horrek parte-hartzea indartu zuen. Binakako

kronoigoeran 51 bikotek hartu zuten parte, aunitz emakumeak. Kontuan hartu behar da aurretik emakumeendako atle-

tismo eskola bultzatu dutela Gure Txokoak eta Manttaletak eta Lizuniagako Igoeran ikusi zen bezalaxe, Santa Barbara-

ko Igoeran ere emakume aunitz animatu zen entrenamenduetan ikasitakoa mendian goiti erakustera. Lasterketa abiatu baino lehen, ibilaldi gidatua ere egin zen eta ehun lagun baino gehiago joan zen kiroldegitik Santa Barbarara, mendi ibilaldia egin bidenabarkoan korrikariak animatzeko.

Proba bukatuta, berriz, zozketak egin ziren eta horretaz gain, Edurne Pasabanekin batera azkeneko sei zortzi milako mendiak igo dituen Asier Izagirrek ikusentzunekoa eskaini zuen Belandetan, igoera hauetako bilduma bat erakutsiz. Apirilean, berriz ere Himalayara itzultzekoak dira Pasaban eta Izagirre, Everest oxigenorik gabe igotzeko helburuarekin.

PILOTA → MALERREKAKO TXAPELKETA

Ezusteekin abiatu da Errekaren IX. eskuz binakako txapelketa

Elite mailako txapelkunak lehenbizikotik kanpoan gelditu dira

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Erreka elkarteak berderatzigarren urtez antolatutako eskuz binakako txapelketan elite

eta 22 urtez azpikoen mailako lehen partidak jokatu ziren hilaren 12an Donezteben eta Beran.

Ezustekorik handiena elite mailan etorri zen. Izan ere, ia txapelkun suertatu ziren Mololo Irigoien lesakarrak eta Unai Iparragirre leitarak galdu egin zuten lehen kanporaketan, 17 eta 22, Esna eta Uzku-



ARTXIKO ARGAZKIA

Iparragirre eta Irigoien, lehenbizikotik kanpo gelditu dira.

dunen kontra. Esain eta Errekako Madariagak 22 eta 15 irabazi zieten Gure Txokoako Bilbao eta Mitxelenari. Tolosako Belloso eta Jauregik 22 eta 19 irabazi zieten Etxeberri eta Alberdiri eta Larrañagak eta Gorritik 22 eta 18 irabazi zieten Senperena eta Telletxeari. 22 urtez behetikoetan

Barberena-Loidik 22 eta 5 irabazi zieten Domai-ka-Juanenari; Errekako Oronoz eta Irurtzungo Pazosek 22 eta 19 irabazi zieten Loban- Iraitotzi eta Lopez-Alustizak 22 eta 10 irabazi zieten Santxo - Urruzolari. Elite eta 22 urtez azpiko mailako lehen jardunaldia urtarrilaren 19an osatzekoa zen.

ERREMONTA

Koteto Ezkurra berriz txapeldun

TTIPI-TTAPA

Koteto Ezkurak irabazi zuen Orona torneoaren urtarrilaren 8an Hernaniko Galarreta pilotalekuan jokatuak finaleran Julen San Migueli 30-25 irabazita. Neurketa orekatua izan zen, baina azken txanpan gehiago asmatu zuen txapeldunak. Sakearekin hamar tanto lortu zituen. San Miguelek ez zuen Casino Kursal txapelketako errebantxa hartzerik izan.



ARGAZKIA. FOTO MENA

Jon Apezetxea eta Iñaki Eskudero pilotari profesionalak izan ziren sari banaketan.

PILOTA → ABENDUAREN 18AN BORTZ KATEGORIETAKO TXAPELDUNAK ERABAKI ZIREN

Baztango pilota txapelketako finalak jokatu dira Iruritan

29. edizioko finalik estuena kadeteetakoa izan da

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Abenduaren 18an jokatu ziren Iruritako Ar nabia pilotalekuan Baztango XXIX. pilota

txapelketako finalak.

Ttikien kategorian, Elizondoko Axier Ballarena eta Jon Karrikaburuk 18 eta 8 irabazi zieten Iruritako Victor Urrutia eta Elizondoko Ibai Garaikoetxeari.

Umeen kategorian, Elizondoko Egoi Zelaetak eta Irulegiko David Barrenetxek 18 eta 15

irabazi zieten Lekarozko Oier Ariztegi eta Garzaingo Aritz Elizegiri.

Kimuen kategorian, Javier Etxegoien eta Ibon Irazoki elizondarrek 18 eta 16 irabazi zieten Larraitzarko Andoni Gaskue eta Manex Meokiri.

Haurren kategorian, Almandozko Peio Os-

koz eta Elizondoko Sergio Oskozek 18 eta 7 irabazi zieten Lekarozko Jagoba Ariztegi eta Iñaki Antsori eta kadetetakoko final estuan, Elizondoko Dario Trantxe eta Igantxiko Mikel Beginok 18 eta 17 irabazi zieten Iturengo Arkaitz Untxalo eta Erratzuko Patxi Irigoieni.

ERREMONTA → LIZASORI IRABAZI ZION FINALEAN

Gorka Urtasunek irabazi du Martiko erremonete txapelketa

TTIPI-TTAPA | IRURITA

Binaka ez ezik, binaka ere txapelak irabazten hasi da erremonetean Gorka Urtasun iruritarra. Errege egunean jokatu zen frontoi laburreko Martiko txapelketaren final ikusgarria Labriten eta 30-25 irabazi zion Iñaki Lizaso doneztebarrari. 1986ko maiatzaren 11n Iruritan jaiotako pilotariaren gatzetasuna nagusitu zitza-

ion Doneztebekoaren beteriari. Espezialista handia da Lizaso, baina Urtasunek pilotari eman zion abiadurarekin ezin izan zuen deus egin. Gainera, erreboterian ere ongi defendatu zen iruritarra eta jokaldi horrekin tantoak ere lortu zituen. Buruzburu eta frontoi laburrean onenen pare dagoela erakutsi zuen Urtasunek eta titulua lortu zuen.



ARGAZKIA: WWW.ERREMONTEFUNDAZIOA.ORG

Urtasun iruritarra pilota astintzen.

Gorka Urtasun Saldias laxoan eta esku pilotan bikain aritu zen gazteago zenean, baina erremonetean hasi zen eta

duela urte eta erdi, 2009ko uztailaren 12an debutatu egin zuen profesionalen kategorian eta dagoeneko zenbait titulu lortu ditu.

TXARUTA

2010 urtea ederki akitu zuen pilota elkarteak

TTIPI-TTAPA

Txaruta Elkarteko pilotariak han hemenka aritu dira hainbat txapelketetan parte hartzen. Nafarroako Herriarteko Txapelketa irabazi ondotik, Nafarroako txapelketetan ere paper txukuna egin dute: Kimu B mailan txapelkun izan ziren Andoni Gaskue eta Ander Zelaia; haur mailan azpitxapelkun Iñaki Antso eta Sergio Oskoz; gazte mailan, azpitxapelkun Joseba Arimendi eta Joseba Apeztegia, eta helduetan txapelkun izan zen Txaruta eta datorren urtean Ohorezko mailan jokatzeko lekua lortu. Lizarrako txapelketan, kadetetan Arkaitz Untxalo eta Joseba Apeztegia txapelkunorde izan ziren. Burlatako txapelketan, helduetan Gaizka Otxandorena azpitxapelkun izan zen. Gartzarongo txapelketan, kimuetan Enaitz Antso eta Iker Espelosin eta helduetan Ibai Arano (Zizurko Iriarterekin) txapelkun izan ziren. Baigorriko Txapelgoan, helduen mailan, Unai Arraztoa eta Ibai Arano azpitxapelkun izan ziren. Donostiako Alde Zaharreko txapelketan, helduetan, Unai Arraztoa eta Gaizka Otxandorena azpitxapelkun izan ziren. Akitzeko, Mendilloriko Olentzero Trinkete txapelketan, gazteetan, Joseba Arizmendi eta Iban Inda txapelkun izan ziren.

LASTERKETA → IÑIGO ARREGI ETA MAIKA ARIZTEGI IRABAZLE

164 korrikalari bildu ditu Doneztebeko V. San Silvestreak

Iñigo Arregi herritarra eta Maika Ariztegi iturendarra izan dira garaile

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Doneztebeko Erreka elkarteak urtea kirola akitzeko helburua ederki bete zuen urtarrilaren 31n. Goizean Mendaur mendi kaxkoan barna ehun mendizale baino gehiago bildu ondotik, arratsaldean San Silvestre lasterketaren bosgarren edizioak parte-hartze marka hautsi zuen beriz ere 164 korrikalarirekin (75 haurretan eta 88 helduetan). Nagusien kategorian, Iñigo Arregi doneztebarrak nagusitu zuen bigarren urtez segidan



ARGAZKIA. ERREKA K.E.

Doneztebeko San Silvestre lasterketako gizonen eta emakumezkoen podiumak.

gizasemeen artean eta Patxi Irazoki igantziarrak eta Xanti San Miguel doneztebarrak osatu zuten podiuma. Emakumezkoetan Maika Ariztegi iturendarra izan zen lehena, Maria Telletxea doneztebarraren eta eta

Paula Jadraqueren aitzinetik.

SERGIO IRIBARRENEN OMENEZ

Horretaz gain, hogei oparizozketatu ziren partehartzaileen artean eta hortxe izan ziren San An-

tonioko Ibai Meoki eta Niko Mindegia, Erreka-ko harrobiko harribitxiak, sariak ematen bere irribarrerik onenarekin.

Sari banaketan, Miguel San Miguel Doneztebeko alkatea eta Nafarroako Kutxako Ja-

vier Almandoz izan ziren.

Aipatzekoa da lasterketa berriki hildako Sergio Iribarren Erreka-ko bazkidearen eta kros zalearen en omenez egin zela. Bera gogoratzeko izan ziren txalo zaparradarik handienak.

SAILKAPENA

GIZASEMEAK

1. Iñigo Arregi 11:14
2. Patxi Irazoki 11:25
3. Santi San Miguel 11:41
4. Iñigo Lasaga 11:59
5. Patxi Pikabea 12:01
6. Fermin Oteiza 12:15
7. Iban Zubieta 12:20
8. Beñat Mitxelena 13:04

EMAKUMEAK

1. Maika Ariztegi 13:29
2. Maria Telletxea 14:08
3. Victoria Jadraque 15:15
4. Lorea Agirre 15:37

LASTERKETA → BIGARREN EDIZIOA

Kasik 200 korrikalari atera dira Elizondoko San Silvestre lasterketan

Azpilkuetako Unai Barazabal eta Irungo Eva Zabalegi izan ziren irabazle

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Elizondon ere San Silvestre lasterketa antolatu zuen bigarren urtez Baztan Kirol Elkar-

teak, Udalaren eta merkatarien laguntzarekin. 3,9 kilometroko lasterketa osatzeko kasik 200 korrikalari bildu ziren, giro ederrean.

Gizonen senior kategorian Azpilkuetako Unai Barazabal sartu zen irabazle, Elizondoko Iñaki Telletxea eta Iruritako Angel Garteren aitzinetik. Emakumezkoetan, Irungo Eva Zabalegi nagusitu zitzaion Sonia Salvado eta Elizondoko Mari Jo-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Maribel Ariztia helmugara heltzen eta Elizondoko probako podiumeko irudia.

se Garmendiari. Aipatzekoa da kasik 60 urte dituen Maribel Ariztiaren parte-hartzea, bai-

ta Bartzelonako 1992ko olinpiadetan urrezko domina lortu zuen Teresa Motosena ere.

urtarrilak 20-otsailak 2

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Kontzertuak**

ELIZONDO | 2011.01.22

Gatibu taldea azken lana aurkezten Lur dantzalekuan

Alex Sardui kantariak gidatzen duen Gernikako taldeak zuzeneko diska grabatu du eta zuzen-zuzenean aurkeztuko du larunbat gauerditik aitzinera.

Ospakizunak

LESAKA | 2011.01.23

San Anton eguna ospatzera Endara auzora

San Anton ondoko igandean erromeri giroa izanen da Endara auzoko baselizaren inguruan. Inguruko herrietatik hainbat erromes bilduko dira.

Ospakizunak

AIZAROTZ | 2011.01.29

Txapamendi jardunaldien hondar eguna

Urtarrilaren 22an Palestinari buruzko solasaldia izanen da Lesakako Arranon eta 29an, jardunaldien hondar eguna izanen dute Basaburuko herrian.

Bertsoak

GOIZUETA

Gaszte Asanbladak bertso afaria

Urtarrilaren 28an Julio Soto eta Miren Amuriza ariko dira Umore Onan, 22:00etan hasita. Txartelak hilaren 26a baino lehen hartu behar dira Amaiarenean.

Tailer irekiak

ELIZONDO

Izen emateak**urtarrilaren 17tik 21era**

Urtarrilaren 26 eta 27an *Google: Zerbitzu eta trukuak* ikastaroa emanen da 10:00etatik 12:00etara.

Otsailaren 7 eta 9an *Azkar ezazu zure PC-a* ikastaroa emanen da 19:00etatik 21:00etara.

Otsailaren 14 eta 16an *Bideo digitalen edizioa: Movie-maker programa* ikastaroa emanen da 19:00etatik 21:00etara. Eskiz Informatika zerbitzuak eskainiko du doan. Izen ematea urtarrilaren 17tik 21era.

Ikastaroak

ELIZONDO

Ordenagailuz idazten ikasi

Urtarrilaren 24tik otsailaren 4ra word hasi berriendako maila emanen da Eskizen astelehen, asteazken eta ortziralean 19:00etatik 21:00etara. Matrikula: 30 euro.

Zura lantzea ikastaroa

Urtarrilaren 26an hasita asteazken 42 orduko ikastaroa eskainiko da Arizkunenean 09:45etik 13:15era. Matrikula: 60 euro errolatuek eta 100 euro errolatu gabekoei. Izen ematea Arizkunenean urtarrilaren 17tik 21era.

Kontzertuak

ELIZONDO

Gatibu taldea Lur dantzalekuan

Urtarrilaren 22an bere azken diska aurkeztuko du Gatibu talde bizkaitarrak Lur dantzalekuan, 00:30etik aitzinera. Sarrera: 12 euro.

Napar Mex musika Lur dantzalekuan

Urtarrilaren 29an Los Zopilotes Txirriaos taldeak ("Impekables" ohiak) emanaldia eskainiko dute Lur dantzalekuan, 00:30etik aitzinera. Sarrera: 9 euro.

Erakusketak

ELIZONDO

Irunberriko margolarien erakusketa

Urtarrilaren 11tik otsailaren 5era Irunberriko zenbait margolarien pintura erakusketa Arizkunenean.

Emakume baserriarren begiradak erakusketa

Urtarrilaren 10etik 22ra Raquel Rico margolari beratarrak egin-

dako argazkiekin erakusketa antolatuko du EHNE sindikatuak Arizkunenean.

Ospakizunak

LESAKA

San Anton Eguna

Urtarrilaren 23an egiten da ospakizuna Endara auzoko San Anton ermitan.

LEKAROTZ

Nafarroako Eskola Ttikien I. Jardunaldiak

Urtarrilaren 29an Na-

farroako Landa Eremuko Eskola Ttikien I. Jardunaldiak ospatuko dira.

AIZAROTZ

Txapamendi bukaera

Urtarrilaren 29an Txapamendi ekitaldien bukaera. Ikus 31 orria.

Inauteriak

LEITZA

Atsauretuen pesta

Urtarrilaren 21etik 25era ospatuko dituzte inauteriak. Xehetasunak 10. orrian.

tasunak 10. orrian.

SUNBILLA

Karrozen desfilea inauteriak akitzeko

Urtarrilaren 28tik 30era ospatuko dituzte inauteriak. Xehetasunak 16. orrian

AURTIZ-ITUREN-ZUBIETA

Joaldun eta mozarroen harat-honatak

Urtarrilaren 27tik otsailaren 2ra ospatuko dituzte inauteak. Xehetasunak 14. orrian.

PROPOSAMENA

AURTIZ-ITUREN-ZUBIETA Joaldunen harat-honatak herriz herri

Hemen dira berriz ere inauteriak. Aurtiz, Ituren eta Zubieta aldean joaldunen eta mozarroen harat-honatengatik dira ezagunak eta aurtengoan ere ez dute hutsik egingen. Leitzan ere atsoguratuen bestarekin hasiko dira asteburu honetan eta Sunbillan, baserrietako eskearen ondotik, urtarrileko azken igandean karrozen desfile ikusgarria izanen dute



Antzerkiak

LEKAROZ

Ipuin kontalaria gaztetxoentzat

Urtarrilaren 28an Oswaldo Pai gaztetxoentzat ipuin kontalaria izanen da Lekaroz-Elizondo DHIn, 10:00etan, Arte eta Kultura programaren barnean.

Mendi irteerak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleen ateraldiak

Urtarrilaren 23an Lizarmeaka-Otsondo-lkatzatea-Urdazubi-Indaburua-Iriarte-Altzola-Lizarmeaka bidea eginen dute 08:00etan abiatuta.

Urtarrilaren 30ean Beintza-Labaienera ateraldia eginen dute 08:00etan abiatuta.

LESAKA

Beti Gaztekoak San Anton eta Mendaurrea

Urtarrilaren 23an San Antonera joanen da Beti Gazteko mendi taldea, 08:00etan plazatik abiatuta.

Urtarrilaren 30ean Mendaurrea joanen da Beti Gazteko mendi taldea. 07:30ean plazatik kotxez Sunbillara eta handik Mendaurrea joanen dira.

Zinema

LEITZA

Zinema denboraldia

Urtarrilaren 28 eta 30ean *Rumores y mentiras* filma ikusgai zinema.

Otsailaren 4 eta 6an *La red social* filma ikusgai zinema. Ostiralean 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Erregina bahitua

AITOR ARANA

Ibaizabal, 2010

Iratiko basoan sineskeriak eta ipuinak ugariak dira. Baita sorginak, laminak, iratxoak eta herensugeak ere, bertako kondairen arabera. Inork ez ditu sinesten, baina hurrei kontatzen zaizkie ekaitza denean, trumoiak eta oinaztargiek Lurra menperatzen dutenean. Baina, agian, Basoko izaki magikoak dira mitoen atzean ezkututzen direnak, ez dutelako nahi gizakiok beren berri izan dezagun. Ekaitza denean, kondaira horiez oroitzen dira Irati inguruko biztanleak. Joana Albretekoa basoko izaki berezien laguntza beharko duen erregina da. Eta Elena eta Martin neska-mutikoak tartean ibiliko dira, abentura zirragarrian, misterioak argitzen. 10 urteko goitiko neska-mutikoei zuzendutako liburua idatzi du Aitor Aranak, Olatz Garciaren marrazkiekin.

Musika




Zuzenean bizitzeko gogoa

GATIBU

Baga-biga musika ideiak, 2010

Gatibu taldearen sorrera (Gernika, 2002) Haimar Arejita eta Alex Sarduri (ahotsa) zor zaie. Gatibu taldeak bertze bi zutabe ere baditu, Gaizka Salazar (bateria) eta Mikel Caballero (baxua). Laukote honek euren musikarekin hainbat aldiz jo du Euskal Herriko musikaren gailurra, bai diskoaren salmentari dagokionez (*Zoramena* diskoaren salmenta lekuko), baita zuzeneko ekitaldiei dagokionez. Diskoen salmenta erruki gabe etorri da beheiti, Gatibu taldeak, ordea, kopuru itxurosoetan dago kokaturik. Zuzenekoetan beti izan du ikus-entzule amorratuen bultzada eta jarraitzaile aunitz emanaldiz emanaldi. 2009ko hasieran Gatibu taldearen soinu sasoa inoiz baino hobea zela ikusirik, une horien irudi eta soinuak DVD batera ekartzea pentsatu zen eta estudioan grabatutako hiru abesti berri gehitzea opari modura. Hemen emaitza. *Zuzenean bizitzeko gogoa* bi euskarritan argitaratu da. Bat, DVD+CD. Bi, CDa bera bakarrik.

Internet




Olentzerori buruz aritzeko urte osoan

WWW.OLENTZERO.NET

Webgune hau Olentzeroren adierazgarri onena da, baina Eguberrietan ez ezik, urte osoan eskuragarri izanen du Olentzeroren jarraitzaileak. Hasierako orrian ageri den bezala, "euskaldun guztion Eguberrietako espiritua ordezkatu nahi du. Magia, nostalgia eta elkartasuna nagusi diren egun horietan, baita urtearen gainerakoetan ere, euskal mitologiaren unibertsoaren inguruan gertatzen denaren berri izango duzu webgune honen eta bere sare sozialen bidez. Olentzerorengan interes handia duen jendeak (Olentzeroz maiteminduta dagoela ere esan liteke) egin du, hau da, egileek gozatu egiten dute hori egiten, eta euren xedea denok gozatzea da. Helburua bai Euskal Herrian bai Euskal Herrikan kanpo pertsonaia ospetsuari buruz dagoen guztia biltzea da". Horretarako testuak, argazkiak, iritziak, denetik biltzen du Udalbidek bultzatutako webguneak.

Nire aukera



Mitxel AGINAGA
Narbarteko kirolaria

«Kirol egiten segitzen dut, baina ez garai batean bezala»

Nafarroako mendi duatloi txapelketa hamar aldiz segidan irabazi zuen Mitxel Aginaga narbartearrak, azkena 2007an. Orain ere kirol egiten segitzen du, baina ez orduan eskaintzen zion dedikazioarekin: «Egunero lasterka egiteko ohitura daukat, baina bizian badira etapa aunitz eta orain lasaigo hartzen dut». Hain zuzen, biziak Narbartetik Donibane Garazi ondoko Azkarate herri-eraman du Aginaga eta han ere herri kirolak erakusten saiatzen da gaztetxoei. Astia duenean, mendira ateratzea gustatzen zaio: «Badut zakur ttipi bat eta haren estakuruarekin mendira ateratzen naiz, Baztango mendigoizaleekin ere ateratzen naiz asteburuetan, etxeko lanak, baratzea... ez naiz gelditzen, ni geldirik nagoenean, gaizki!». Aitzinako autoak ere gustatzen zaizkio eta «nere Citroen DS xaharrarekin Iruñean egiten diren kontzentrazioetan parte hartzen dut» dio. Bidaiaz ere gustuko du eta iaz Venezuelan otsailan eta berriki Argentinan izan da.

ETXEBIZITZAK
salgai

BERA. Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldia balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. 3. solairuan eta igogailuarekin. ☎948 631381 / 697 436845/ elvetearra@aol.com.

DONEZTEBE. Zazpigerutze plazan 115m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreintu gabea. ☎630 948271.

LESKA. Etxebizitza salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

ELIZONDO. Pisua salgai, 3 logela, sukaldia, komuna, jantokia eta balkoia. Berogailua. ☎676 707620.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. 64 m² + 12 m²ko balkoia + trastelekua duen pisua salgai. Herri erdi-erdian. Berritu berria. Sukaldia eta egongela dena bat, 45 m² ingurukoa. 2 gela, 3 egiteko aukerarekin. Oso eguzkitsua. Ura eta kalfakzioa gas naturalarekin. ☎656 743356.

DONEZTEBE. Rosa Seminario 6-1 kalean pisu polita salgai. 3 logela, 2 komun, sukaldia era egongela, logela bat ko-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

munarekin eta sukaldia mobleztatua. Guztira 120 m². 95 m² pisuak eta 25 m² terraza eta balkoi komunikuarekin. ☎696 312019-650156988.

IRUN. 100 m²ko pisua salgai, Pio XII plazan, 4 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela, 12 m²ko trastelekua, 2 balkoi, igogailuarekin. ☎943 611111-696 479694.

LESKA. Plaza Zaharrean, pisu eraiki berria salgai, 2 logela, sukaldia, egongela, bainugela, terraza, igogailuarekin. Eraikin berean, garaje itxiak eta irekiak, trastelekua. ☎943 611111-696 479694.

BERA. Pisua salgai, 2 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Oso eguzkitsua. ☎699 397279.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

DONEZTEBE. Herri erdian dagoen pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela-jangela eta sukaldia. Gela guztiek kanpora ematen dute. ☎699 798207.

BERA. Iturlandetan pisua errentan emateko. 3 logela eta igogailua. ☎948 630090/617 565487.

ALKAIAGA. Pisua errentan ematen da. Mobleztatua. 3 logela, 2 komuna, egongela eta sukaldia. ☎649 161830.

LESKA. Herri erdian apartamentua errentan emateko. ☎675 714360.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

IRUN. Erdian funtzionamenduan dagoen pub

salgai. 85 m²ko lokala, lizentzia ordutegi zabalarekin, guztia ekipatua, arazoizko prezioa. ☎943 611111-696 479694.

BERA. Nabea salgai, Bidasoa karrikan, bulego eta komunarekin. Agerra auzoaren ondoan. ☎639 110864.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan eman

DONEZTEBE. Donamariarako errepidean 50 m²ko lokala errentan emateko, bainugela, argia eta ur beroarekin. Lokal komertziala izandakoa. ☎656 768024.

ELIZONDO. Lokal komertziala errentan emateko. Bulegoa paratzeko prestatua dago. Prezio interesgarria. ☎626 021643.

DONEZTEBE. Herri er-

digean ostatua bere terrazarekin errentan emateko. Zerbitzu guztiekin eta lizentziak. Egoera arras onean. ☎948 580804/649964244 (Anzabal Inmobiliaria).

LURRAK/ORUBEAK
salgai

LESKA. Nabaz auzoan lur eremua salgai. 2.600 m² eraikigarri. ☎661 219827.

ARIZKUN-BOZATE. Bi bizitzako bi etxe eraikitze 1.912 m²ko lur eremua salgai, proiektorekin. Interesgarria. ☎943 611111-696 479694.

ZERBITZUAK
zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guztietako zurgin lanak
- Eskatu sarrekontuak konpromisarik gabe
Jose Miguel Corchero
948 580 804 - 948 581 459
Gentiluz ARANTZA

ZERBITZUAK
bertzelakoak

BORDA
ISOLAMENDUAK
Termikoak | Akustikoak
Suaren kontrolak
Pladur lanak - Eraberritzeak
Eraikitze - Industriadak
Dekorazio - Sobel modurak
Tel. 948 580 804 - 948 581 459
LESKA - borde@arantza.net

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(abenduaeren 31tik urtarilaren 7ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 35,00 € (=)

Zerri gizena
1,018 € kiloa. (=)

Zerramak:
0,400€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,01 (=)

1.koa 3,70 (=)

2.koa 3,37 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,09 (=)

1.koa 3,80 (=)

2.koa 3,50 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)

idixkoak 200,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,70/2,80

Zaldi-behorrak: 1,55/1,69

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,40/8,10

8-10 kilokoak: 6,30/6,60

LANA

eskariak

Emakume bat eskaintzen da arratsaldetan edozein lanetan aritzeko. ☎662 410914.

LESKA. Hemengo neska bat lanean ariko litza-teke. Umeak zaintzen, etxeko lanak egiten, klase partikularrak ematen... ☎630 081416.

LANA

eskaintzak

AURTIZKO INAUTERIETAN sukaldari laguntzailea behar da. ☎636 770901.

MOTORRA

salerosketak

Seat Ibiza TDI autoa salgai. 3 atekoa. 13 urte. Egoera onean. ☎696 843298.

MOTORRA

tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK



ANIMALIAK

opari

Bi hilabeteko **ardi zakurrak** oparitzeko. ☎652 729101.

LEITZA. Artzain txakur alemanaren kruzea den txakurkumea oparitzen da. Arra da eta hiru hilabete ditu. ☎665 750595.

BERA. Bortz zakurkume oparitzeko. Atta Border-Collie arrazakoa eta ama nahasketa. ☎696 721575.

ANIMALIAK

salgai

Artzain **txakurkume alemaniar** arrak salgai. Abenduaren 5ean sortuak. Benetan interesa dutenek bakarrik deitu. ☎659 597051.

ARANTZA. 10 ardi salgai. ☎948 634181 (deitu ilunabarretik aitzinera).

ARESO. Aharia salgai. ☎948 510314.

DENETARIK

galdu/aurkituak

LESKA. Bizikleta bat agertu da ekainean. ☎948 637005.

LESKA. Bizikleta agertu da, haurraren aulkia gibelean duela. ☎948 637005.

LABAIEN. Ardiak desagertu dira. Laia ezkerreko aldean eta eskuinean punta motza dute. ☎690 722683.

LABAIEN. Ahari bat agertu da. Belari puntan arrailak dituena. ☎690 722683.

DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 /699 461394.

Burdinezko futbolina salgai. 650 euro. ☎636 996627.

Hergon markako egurrezko berogailua eta su-

kalde kalefaktore haundia salgai. ☎948 453110.

Belar bolak siloan salgai. ☎636 193792.

Haritz amerikarrak eta gerezi plantak salgai. ☎948 450888 (deitu eguerdi eta arratsetan).

Egongelarako **lanpara rustikoa** eta egurrezko **mahai ttikia** salgai. ☎617 461649.

Egongelan jartzeko armarua salgai. Platerak eta abar gordetzeko horietakoa. Pinua eta eskuz egina. ☎696 443427.

Traktorea edo trato-karroa erosiko nuke. ☎645 013213.

Segadora salgai, 600 eu-rotan. ☎645 013213.

Yamaha bajua eta Ampeg AP-15 amplia salgai. Flight case fundarekin biak. ☎685 633 195.



DENETARIK

bertzelakoak

Dominikar Errepublika, Ekuatore Ginea eta Ginea Bissauko umeak udan etxean hartzeko eta umeak apadrinatzeko familiak behar dira. ☎634 401978.

TTIPI-TTAPA: ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskartzeko **DOKUMENTU-POLTSA** bat izanen duzu opari

Can proiektu zenbakia **15.996**

Behar duzu dokumentu zurea eta laguntza eskaintzeko? TTIPI-TTAPA behar du zure laguntza. Zure laguntza eskaintzeko, zure dokumentu zurea eta laguntza eskaintzeko, zure dokumentu zurea eta laguntza eskaintzeko.

ARANTZAKO UDALA

Egiturazko aldaketa sektorizatu gabeko A lurzorur urbanizagarrian. Hasierako onspena

Arantzako Udalak, 2010eko abenduaren 1ean egin bilkura arruntean, erabaki zuen hasiera batean onestea egiturazko aldaketa Arantzako Arau Subsidiarioetako sektorizatu gabeko A lurzorur urbanizagarrian.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, espediente hilabetez egonen da jendaurrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita; epe horretan, interesdunek eskura izanen dute espediente Udalaren bulegoetan, egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Arantzan, 2010eko abenduaren 2an.
Alkatea, Ainara MAIA ALMANDOZ

BERAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

OSOKO BILKURAREN AKORDIOA
- HIRIGINTZA -

Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2010eko abenduaren 23koa: Udal Plan Orokorren aldaketa egiturazkailea, 9. poligonoko 4. lur-zatia, S-9 eta SK-1ean, 12. sektore berria sortzeko, hasiera batez onestea.

Espediente hau jendaurrean izanen da hilabete batez, dagokion iragarria NAO-n argitara ematen denetik.

Bera, 2011.01.10
ALKATEA, Josu Iratzoki Agirre

Eskalerak igotzea... ez da arazo!

Behetik

igogailu bereziak
aulki bereziak...

Afarga-baki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

SANTESTEBAN Tailerrak

SUZUKI VITARA 1.1 VTD
11.000 km - 1999/00

LANUNA II EXPRESSION
1.4 DCI 130 CV
61.000 km - 2007/08

TRAFFIC & PLAZAKOA
1.4 DCI 90 CV
44.000 km - 2007/08

ETA GAINERA
Clio Community 1.4 DCI 65 CV - 2005 urtekoa
Clio 16V 1.6 16V CV
Clio 16V 1.6 16V CV
KAWASAKI Ninja 600i 600cc 1.9 DCI 70 CV
Honda Civic 1.6 1.6 16V CV
Suzuki V-Strom 1.6 16V CV
Suzuki V-Strom 1.6 16V CV
Suzuki V-Strom 1.6 16V CV
Suzuki V-Strom 1.6 16V CV


WELFARE & DYNAMICAL
1.6 DCI 100 CV
42.000 km - 2008/09

DONEZTEBEN RENAULT-en KOTXE IA BERRITAN SEKULAKO ESKAINTZAK

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



JAIONE GOÑI MITXELENA lesakarrak 8 urte bete ditu abenduaren 19an. Zorionak gure "sorgintxo". Arantzako atxiki-amaxi, Joxe eta Amaia. Muxu 1.



KOLDO LACAR. Zorionak Legasako mutil ederrena. Prestatu merendola haundi eta ona. Muxu aunitz Berako familiaren partetik.



Leitzako ITXARO ZESTAU GOGORZAK 7 urte bete ditu urtarrilaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat bere familiaren partetik.



ANE URREAGA ESKUDEROK urteak bete ditu urtarrilaren 11n. Zorionak Markeña! Muxuak. Deneztebeko familia eta bereziki Mikelen partetik.



Sunbillako BITTORIK urtarriaren 16an 84 urte beteko ditu. Aunitz urtez bere seme-alabak, suhia eta erreginaren partetik. Ongi pasa.



Sunbillako BITTORI IBARRA AGESTAK urtarriaren 16an 84 urte beteko ditu. Aunitz urtez amaxi, Iraide eta Garaineren partetik, eta nola ez Nahia biobaren partetik. 84 mila muxu.



Sunbillako IRAIDE ETA GARAINEREN 19an 2 urte beteko dituzte. Aunitz urtez attatto eta amatoren partetik. Ze abudo pasatu diren 2 urteak. Ongi pasa eguna eta 2mila muxu.



Sunbillako Ibraide eta GARAINEREN 2 urte beteko dituzte. Aunitz urtez osaba-izeben eta bereziki amaxi xarra Bittoriren partetik. Ze nola disfrutatzen duten pozalakin dutxa goxo bat hartzen. Muxuak.



Berako JON PAGOLA LOPEZEK 7 urte beteko ditu urtarrilaren 27an. Zorionak txapeladun! Muxu haundi bat familiaren partetik.



AINARA BURGETE igantziarrak urtarriaren 4an 10 urte bete ditu. Zorionak attatto, amaxo eta muxuak Saraitxoren partetik.



LEIRE GARCIA VAZQUEZ. Lesakako Leirek 2 urte beteko ditu otsailaren 2an. Zorionak familia guztiaren partetik, ongi pasa zure eguna, muxu aunitz bihotza!!



LEIRE GARCIA VAZQUEZ. Gure porrotxik 2 urte beteko ditu otsailaren 2an. Zorionak eta muxu pila bat, attatto eta amatoren partetik.



Sunbillako GARAINA eta IRAIDE IRIARTE PETIRENA bi sorgintxo hauek urtarriaren 19an 2 urte beteko dituzte. Aunitz urtez eta 2 mila muxu atautxi, amaxi eta nola ez, izeba Nerearen partetik. Ongi pasatu eguna.



Elizondoko NAROA BALLARENA GOIENETXEK 7 urte beteko ditu urtarriaren 14an, bere ama Ixak eta bere besoetako amaxi Kristinak ere egun berean urteak beteko dituzte. Zorionak eta ongi pasa etxeko aitaxo, Leire txikia eta familiaren partetik.



Sunbillako IRAIDE ETA GARAINEREN 2 urte beteko dituzte urtarriaren 19an. Zorionak Berako osaba-izeba eta lehengusuen partetik. Muxu haundi bat pituxis!



Goizuetako MANUEL eta MARITXOK 59 urte egingo dituzte ezkonduki urtarriaren 19an. Segi orain eta bezala egunero elkarrekin paseatuz. Zorionak seme-alaba, biloba eta birloben partetik.



Añorgako NAROA AROZENAK 8 urte beteko ditu urtarriaren 24an. Zorionak zure lehengusua Aiala eta Gexanen partetik.



Igantziako KATTALIN IRURU-ETA BARTOLOME familiako txikiak urtarriaren 15ean 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu pila.



Berako IZARO LARRAIDE IBARRAK urtarriaren 26an 9 urte egingo ditu. Zorionak eta muxu haundi haundi bat etxeko partetik.



Urtarrilaren 15ean eta 16an Arantzako JOXE eta OLATZEK, atta-alabak, urteak bete dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Ainereren partetik. Afaria non?



ARITZ BIKONDO ARRETXEAK 6 urte bete ditu urtarriaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta Uxueren partetik.



Zorionak Legasako gure IZEI moxoloiari urtarriaren 31n 4 urte beteko dituelako. Muxu haundi bat familiaren partetik.




MIKEL SAN SEBASTIAN lesakarrak urteak bete ditu urtarriaren 11n. Zorionak osaba! Ikusten duzu ze txintxo gauden, ezta? Ea noiz iristen den belarritik tiratuko dizugun eguna! Bitartean zaindu eta jaso itzazu txokolate eta marrubizko muxu pila pila pila!



MIKEL EZKURRA auritziarrak urtea bete du urtarriaren 5ean. Dagoeneko urte bat pasatu da! Zorionak familia guztiaren partetik.



IKER OSUA CABIDA beratarak 7 urte beteko ditu urtarriaren 20an. Zorionak eta zazpi muxu familiaren eta bereziki Ikerren partetik. Aupa pilotari!



ANE OSUA CABIDA beratarak otsailaren 3an 11 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta bereziki Ikerren partetik. Aupa Toki-Ona!



Eratsungo NAROA RETEGIK 3 urte bete ditu urtarriaren 18an. 3 muxu haundi haundi Aurtiztik.



NAROA RETEGI ESKUDERO eratsundarrak urtarriaren 18an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik eta bereziki atta eta amaren partetik.



ENEKO OTXOA GOÑI elbeteak urtea beteko du otsailaren 5ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat Elbete eta Bilboko familien partetik. Aunitz maite zaitugu!




Iruñeko ANNE ETA NAIA CASADO SAROBK 2 urte urtarriaren 12an beteko dituzte. Zorionak printzesak aitaxo, amaxo eta Marenen partetik.



OIHAN ETXEBERRIA IPARRAGIRREK 5 urte beteko ditu urtarriaren 27an. Zorionak eta muxu pila familia guztiaren partetik. Segi orain bezain jator!



MAIALENK urtarriaren 27an urtea beteko du. Aunitz urtez gure printzesari eta mila muxu pottolo Kaxkarra guzien partetik.




Lesakako MATTIN LOPEZ TAPIAK 10 urte beteko ditu urtarriaren 20an. Zorionak eta Muxu handi bat familia guztiaren partetik!



Zorionak OSKIA, ISMAEL eta LAIENERI! Urtarrilaren 17, 22 eta 28an urteak beteko ditu osaba-loba hirukote honek. Ea merendu goxoa prestatzen duzen hiruen artean. Zorionak NARBATE eta Gazteluko familien partetik. Muxuak.



Etxalarko IKER OTXOTOKO eta JOSE MIGUEL BENGOETXEA osaba-lobek urteak beteko dituzte urtarriaren 28an eta otsailaren 16an. Zorionak familiaren partetik.



LEIRE MATXIÑENA ALZUGARA. Urtarrilaren 19an 15 urte bete ditu gure neskakza maitagarriak. Zorionak familiaren partetik eta bi muxu Maddi eta Saraiñ.

Zorionak LEIRE! 15 muxu goxo zure lehengusua txikitina Saraiñren partetik.

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

geure bezeroek
aukeratutako
proiektua

Can
proiektu
zenbakia
15.996



Zure laguntza eskertzeko

DOKUMENTU-POLTSA

bat izanen duzu opari



Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak

 **ttipi-ttapa**

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA abenduaren 30a baino lehen.

ttipi txartela

ttipi-ttapa

Asier Iturrin Mutuberria
57913648-2
11/2010
0002549

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK

Eskatu zurea **948 63 54 58** telefonoan

533 aleko TTIPI SASKIAren irabazlea
Tere Bardot Juantorena | **ELIZONDO**



2 LIBURU
Erein argitaletxea
www.erein.com



KROKO LIBURUA
Ibaizabal argitaletxea
www.ibaizabal.com



KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



MUSIKA CD-a
Katxiporreta
www.katxiporreta.com



Liburu sorta honen zozketan parte hartzeko zure izen-abizenak eta telefonoa sarea@ttipi.net helbidera bidali behar duzu.

* TTIPI-TTAPAren irakurle guztiek parte har dezakete zozketan.

DESKONTUAK

jaione tindategia

%10, 12€tik gorako gastuan



FOTO MENA

%10 deskontua kopia digitaletan

kimetz
Belardondia

%10 kosmetikan

Ostargi optika

%10,30€tik gorako gastuan

KATTALINGORRI

%10eko deskontua